# ttipi-ttapa

**219.** zenbakia • 1997ko abenduak 4 • **XVI.** urtea



Argazkia: Fidel CRUZ

# Uraren indarretik argindarrera

**2010. urtean, Nafarroan produzituko den energiatik %38a zentral hauetan sortuko da**

Horixe da eskualdean ditugu zentral hidroelektriko ugarietan egiten den bidea. Mende hasieratik duela urte gutti arte, garrantzi haundia izan zuten gure inguruko errekabazterretan. Gehien bat, Gipuzkoa aldeko lantegiak hornitzeko egiten zuten argindarra haundienek eta, banaz bertze sei langile behar zituen bakoitzak. Gaur egun askoz langile guttiago enplegatzen badituzte ere, orduko 20.000 bat Kilowatio sortzen dituzte eskualdean elektrizitate sare orokorrari lotuak dauden hogeitabat zentralak. Hauei, partikularren eta lantegien esku daudenetan produzitutakoa gehitu behar zaie. ☞ 4

**28** Elkarrizketa:
**Mikel ILLARREGI**
Zonaldeko Zahar Etxea ez da Leitzan eginen. Alkatearen gogoeta, horri buruz.

**6** Iritzia: **Zine denboraldia**

**27** Kultura: **Kristian AMORENA**
«Eztanda» taldeko bateria-jolearekin solasean, Sarako kontzertuaren aitzinetik.

**TTIPI TXARTELA**: Erosi zeurea eta erabili!






## Luis Mari BELARRA

Doneztebeko aizkolariak Nafarroako 2. mailako eta Euskal Herriko 3. mailako txapelak irabazi ditu aurten. Datorren urteari begira «lehen maila mantentzeko eginahala eginen dut» dio, horretarako gehiago entrenatuz. ☞ 28

MUEBLES AMETS

mobleak orokorrean

Bidasoa 45-60
Tfnoa: 948-630537
**BERA**

# Mobleak bukatu arteko eskaintza


















DATUAK...........

- *Azaroaren 11n, zonaldeko Zahar Etxea Araitz-Betelun eraikitzeko erabakia plazaratu zuen Nafarroako Ongizate Institutuak.*
- *Zahar Etxea etorkizunean bainu-etxe edo hostal gisa erabiltzeko aukera planteatu dute, eta hori izan omen da hango proiektua aurrera ateratzeko arrazoi nagusienetakoa, baina merkeena izatea ere kontutan hartu dute, halaber.*
- *Lekunberri eta Larraunek elkarrekin, eta Leitzak bere aldetik aurkeztutako proiektuak atzera bota dituzte, zenbait arrazoi tekniko argudiatuz.*

TESTUA:
**ASIER GOGORZA**
ARGAZKIA:
**JOSEBA AZPIROZ**

**Mikel ILLARREGI** *Leitzako alkatea*

# "Zahar Etxea Betelun egiten bada apostu haundia galduko du Leitzak"

**URTEBETEKO AUZI ADMINISTRATIBOAREN ONDOTIK ZAHAR-ETXEA ARAITZ-BETELUN KOKATZEA ERABAKI DU NAFARROAKO ONGIZATE INSTITUTOAK.**

Bai. Hiru proiektu desberdin zeuden hasieratik, Leitzarena, Araitz-Betelurena eta Lekunberri eta Larraunek elkarrekin ateratakoa. Nafarroako Gobernuak esan zigun gure artean aukeratzeko tokia, horrela moldaketa teknikoak egitea errexagoa izango zelakoan, eta guk, berriz, nahiago genuela beraiek aukeratzea. Azkenean beraiek ez zuten konpromiso hori hartu, eta guk ere ez genuen batere erabaki eta bakoitzak bere aldetik jokatu du.

Guk ez dugu asunto hontan Betelukoen aurkakoak edo etsaiak izan nahi, baina normala den bezala herri bakoitzak bere aldeko apostua egin zuen.



«Leitza infraestruktura aldetik hornituagoa aurkitzen da Betelu baino».

**ZER DELA ETA BAZTERTU ZUTEN LEITZAK AURKEZTUTAKO PROIEKTUA?**

Lau puntu aipatu dituzte gure proposamena atzera botatzeko; proiektu arkitektonikoa egokia ez dela, tamaina haundiegia duela, "valido"entzat plaza minimoak ez direla aurrikusten, eta prezioen aldetik ere beraiek ezartzen dutenaren %20tik gora egiten duela.

Guri oso erantzun labur eta mugatua iruditu zitzaigun, eta eskatu genuen txosten orokorra aztertu ahal izateko. Dekretu baten bitartez boletinean kaleratuko omen da erabaki hori eta orduan errekurtsoa aurkeztu ahal izanen dugu. Txosten hori ikusita erabakiko dugu errekurtsoa aurkeztu edo ez, objetibidadez jokatu nahi dugulako.

> *"Txosten hori ikusita erabakiko dugu errekurtsoa aurkeztu edo ez, objetibidadez jokatu nahi dugulako"*

**NOLA BALORATZEN DUZU ORAINGO EGOERA?**

Aspaldidanik Leitzako Udala kezkaturik zegoen hemengo egoerarekin, zaharren kopurua gero eta haundiagoa dela, badela hainbat zahar herritik kanpo, Erribera aldean-eta. Hemen apostu bat egin da, soziala, ekonomikoa, eta kasik galdutzat eman daiteke. Hala ere, hau arazo nagusiaren zatitxo bat besterik ez da, zaharren problema ez da etxearen asuntoarekin bakarrik moldatzen, eta herri bakoitzak jorratu beharko du bere bidea.

Ilusio haundia jarri genuen proiektuan, beharra ikusten genuelako, eta pentsatzen genuen kondizio minimo hoiek ongi bermatzen zirela hemengo proiektuan. Nafarroako Gobernukoei gure kezka azaldu genien, ez ote zegoen erabakia lehendik hartua. Ezetz esan ziguten, horretarako propio batzorde bat eratu zela, eta eritzi adostua lortu nahi izan zutela.

***Mende hasieratik duela urte gutti bitarte, garrantzi haundia izan zuten gure inguruko erreka bazterretan, nonahi, hedatzen ziren zentral hidroelektrikoak. Gehien bat, Gipuzkoa aldeko lantegiak hornitzeko egiten zuten argindarra haundienek eta, banaz bertze sei langile behar izaten zituzten martxari eusteko. Gaur egun askoz langile guttiago enplegatzen dituzte, baina orduko 20.000 bat Kilowatio sortzen dituzte eskualdean elektrizitate sare orokorrari lotuak dauden hogeitabat zentralak.***

TESTUA: *AITOR AROZENA*
ARGAZKIAK: *KARMELE TOLOSA*



ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAK

# Uraren indarretik argindarrerako bidea

**B**idasoaldeko zentral gehienak mende hasieran sortu ziren, lehen hogei urteetan. Orduan hasi zen industrializazioa eta zentral gehienak, Gipuzkoa aldeko lantegietarako (Oreretako papertegia, Palmera, Rezola...) argindarra sortzen zuten. Herrien beharra –ez gaur hainakoa, noski– hornitzeko bertze zentral ttikiagoak ere izaten ziren, etxe eta auzoen artean. Horrela funtzionatu izan dute ia mende osoan zehar, baina duela hamar bat urte krisia ailegatu zen, ttikienak hertsi ziren, bertzeak ere ixteko puntuan ibili ziren eta elektrizitate-sare orokorrean sartu ziren gehienak.

Gaur egun zentral guziak automatizatuak daude eta langile gutti batzuk bertzerik ez dira lanean ari, mantenimendu lanetan (kanaleak garbitu, makinak kontrolatu...). Langile bat bizpahiru zentralen martxa gainbegiratzeko nahikoa izaten da orain. Hasieran, ordea, zentral bakoitzak sei bat lagun behar izaten zituen, euren kanaleak garbitzeko, lineak mantentzeko, tresneria punttuan kontzeko. *«Ttikienak ez zuten bererik, irabazi guziak hainbertze jenderekin galtzen baitziren»* dio hamar zentral kudeatzen dituen Energia Hidroelectrica de Navarra (EHN) enpresako ordezkaria den Pedro Miguel Ibarra etxalartarrak. Hameka zentral Iberdrolaren esku daude eta badira bertze bospasei partikularren esku daudenak, bi Lesakan Biurrana erreka ondoan (garai batean Irungo Palmera enpresa hornitzen zuen horietako batek), Mourges zentralea, Berrizaungo meha-

tegien parean edo Baztango Udalak Beartzunen duen Ahozpeko zentralea, bertzeak bertze. Berako Fabrika Zaharrak ere (Funbera)badu bere zentrala eta Julian Lekuona, Iberdrolako langileak dioenez, *«aste tartean fabrikarako egiten badu ere, asteburuetan eta fabrika itxia dagoenean, sare orokorrerako saltzen du argindarra».*
Zentralak, sortzen duten eta enpresei saltzen dieten Kilowatioen arabera fakturatzen dute. Hemen inguruan egiten den argia, energia garbia edo berriztagarria dela kontsideratzen da, zentral guziak arras ttikiak baitira, minizentralak deitutakoak. Honela, hemen produzitzen den Kilowatioa garestiagoa da enpresentzat, gehiago ordaintzen baitute zentral nuklear edo termiko batean sortzen duten Kilowatioa baino.

## Udan ur eskasia erreketan

Baina beti ez da hain energia garbia izan, batez ere uda partean, zailtasunak izan baitituzte zentral hauetan, aunitzan errekak ur gutti ekartzen duelakoz. Arazo hori gainditua dagoela uste du Ibarrak. *«Guk hartzen dugun puntutik, berriro entregatzen dugun lekuraino, bitarte horretan ura kentzen diogu errekari. Gure obligazioa da presa batetik hartzen dugun uraren %10 errekara itzultzea. Orain, automatizatua dagoelarik, nahiko ongi eramaten da. Hasieran izan ziren arazo haiek gaindituak daude, Bidasoan behinipein bai. Erreka ttikietan zailagoa da kontrolatzea zenbat uzten duzun: tubo ttiki batzuk izaten baitituzte ura bueltatzeko eta batzutan orbelarekin edo zikinkeriarekin tapatu egiten dira».*

## Etorkizunik bai?

Elektrizidadeari dagokionez, oraindik defizitarioa da Espainia. Beraz, nahiz eta Nafarroan haize parkeen aldeko apostua ere hor dagoen, zentral hidroelektrikoek etorkizunik badutela uste du Pedro Miguel Ibarrak. *«Inguruko herrialdetan eta –Frantzian, adibidez– energia sobera produzitzen dute eta badute saltzeko, baina hemen dena beharko dugu, haize parkeak, zentralak... elkarren osagarriak dira, inolako arazorik gabe».*
Hortaz, etorkizunik badute eta horren erakusgarri, orain berriki Añarbeko Mankomunidadeak (Donostia, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta, Usurbil, Lasarte-Oria eta Astigarragako udalek osatutakoa) EHNren esku zegoen Añarbeko zentrala erosi izana, 650 milioi pezetaren truke. Ez hori bakarrik, herri-elkarte berak zentral berri bat egiteko asmoa du Añarbeko presan bertan, 144 milioi pezetako inbertsioa eginez.
Urak, sua itzaliko du, eta baita argia piztu ere. ■







**Pedro Miguel Ibarra, EHNko langilearen ustez, haize parkeak eta zentral hidroelektrikoak elkarren osagarriak dira. «Oraindik ez dugu saltzeko haina produzitzen, Frantzian eta inguruko herrialdetan bezala»**



ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...
**Inprimategia:** Graficas Ona.
***ttipi-ttapa***k ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Negualdeko zine denboraldiak

## Mr Bean-en pelikula ikustera 400 lagun inguru etorri ziren



Daniel BELARRA
Doneztebe

Bi astetik behin izaten da zinea Donezteben, larunbatean emanaldi bat 10,30etan eta igandean bi, 5etan eta 8etan. Azaroan hasi eta otsailaren 22an akautuko dira zine emanaldiak.
Lehen 5 lagun aritzen ziren hemen lanean, baina aurten hiru gara, takillakoa, sarrerak mozten dituena eta ni, pelikulak botatzen dituena, eta aski da horrelako herri ttiki batentzako.
Pelikulak Udalekoek aukeratzen dituzte, Bilboko Warner eta JMri alokatzen dizkiote, eta bat bertzearekin 20.000 durokoa izaten da pelikulen prezioa. Aurtengo lehenbiziko pelikula arrakastatsua izan zen, Mr Bean pertsonaia ezagunarena zelako, eta 3 sesiotan 400 pertsona inguru bildu ziren, gazteak, 6-7 urteko haurrak gurasoekin... Asteburu honetan Jodie Foster-en 'Contac' emanen dugu.
Ni lehen joaten nintzen kanporat pelikulak ikustera, eta gustatzen zitzaidan pila bat gainera, bainan orain ez dakit komodogo bihurtu garen edo adinagatik edo, baina ez naiz ateratzen. Herrian botatzen ditugunak, ordea, lau aldiz ikusi behar izaten ditut asteburuero, gustatu edo ez.

## Zine komertzialaz saturatua nago, baina hori da hemen funtzionatzen duena



Maria ARRETXE
Leitza

Leitzako zinea Udalarena bada ere gestioa Aurrera Elkarteak eramaten du, eta antolaketa herritar guzieri irekita dago, deialdi irekia egiten baita.
Aurten 5 laguneko hiru talde elkartu gara, programazioa egin eta asteburuero montajea, proiekzioa eta denaz arduratzeko. Filmeak aukeratzeko lista bat egiten dugu "momentuko" pelikulekin (bestela jendea ez da joaten), eta mota ezberdinekoak ekartzen saiatzen gara, batean gogorra bada hurrengoan komikoagoa, eta horrela. Suposatzen da antolatzaileak zinezaleak garela, eta eman beharreko pelikulak aurretik ikusita izaten dituela taldeko bakarren batek. Aurten "Airbag"-ekin hasi ginen, "Secretos del Corazón" ere bota dugu, "Fargo" ere bai eta hemendik Aste Santurarte asteburuero izanen da filmeren bat. Lehen udararte luzatzen genuen zine denboraldia baina eguraldi ona hasten denean jendea 'rajatu' egiten da, nahiz gogo haundiekin hasi.
Bestetik, tristea da baina hemen funtzionatzen duena zine komertziala da gehienbat. Ni, prezis-ki, saturatua nago zine horretaz.

## Baztango jendeak Iruñeko zinera joateko ohitura du, eta hori aldatzea zaila da



Ana LARRUY
Kultur Dinamizatzailea

Neguan deus ere ez da egiten baina Elizondoko Merkatu plazan "Ilargiaren azpian" aire libreko zine emanaldiak egin genituen uztailean, eta arrakasta haundia izan zuten. Horregatik uste dugu neguan egin ezkero jendea etorriko litzatekeela.
Guk bere garaian egin genituen gestio batzuk "El Pilar" aretoan zine eta antzerki emanaldiak antolatzeko, baina monjek beti ezetz erraten dute seguridade kontuengatik eta ez digute baimenik ematen. Instalazio horiek 20 urte baino gehiago izanen dute, eta edozein gauza gertatzen bada ere monjek ez dute ardurarik nahi.
Hemengo jendea Iruñera gaten da gehienbat zinea ikustera. Jendeak badu ohitura hori hartua, eta orain hori aldatzea zaila da. Guk ezin dugu konpetitu hango pelikulekin, han azken nobedadea ikusten baitute. Hemen egitekotan, ordea, diruagatik ezingo genituzkeen pelikula hoiek ekarri, eta beraz, ezinezkoa da horrelako gauza bat errentagarria bihurtzea.
Orokorrean, gainera, defizitarioak izaten dira herri guzietako zine denboraldiak.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Egunero, goiz-arratsaldez irekia.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## IRAKURLEAK MINTZO

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

### Leitzako alkate jaunari erantzuna

Leitzako EAk bi idatzi ezberdin kaleratu dituela eta, Alkate Jaunak nere aipamen egiten du, bere ohiturazko intsinuazio eta hitzerdien bitartez, eta beti bezala inolako frogarik gabe.

Ba ez nuen aipaturiko idatziak egiten parte hartu, nahiz eta beraien edukiaren gehiengoarekin ados egon. Hala ere Illarregi Jaunak idatzi haien egile banintz bezala adierazten du, arazo psikologikoz eraginak gabiltzela esanez, honela arazo hauekin eragina dagoen bakarra, bera dela erakusten duelarik.

Asko eskertzen diot, ba, gure arazo psikologikoez kezkatzeagatik, eta hainbat gehiago, bera sindrome baten mendean ikusita.

Aurreko legealdietako gestioa desakreditatzeko eta beraiena goratu nahiean esaten du, orduan ezbezalako banaketa demokratikoa eta onuragarria egin dutela oraingo legealdian: alkateordea EAkoa, bigarrena UILkoa eta batzorde guztiak hiru taldeen ordezkariekin osatuak. Hauek ekarri digute Demokrazia Euskal Herrira!

Ba, lehen ere, batzorde bakoitza, hiru taldeen artean osatua izaten zen, eta alkateordeak izandu dira HBkoa hala UILkoa.

Aipatzen duenez, beste salaketarik ez, bakarrik ailegatutako dirua ongi banatua izan ote zen galdetu omen zuten.

1994ko abenduaren 8an, Iruñean, HBko lau zinegotzi Leitzakoak, haien artean oraingo alkatea, eta Adolfo Araiz parlamentaria eta Mahai Nazionaleko kidea buru zutela emandako prentsaurreko penagarriaren edukia ahaztu egin nahi du eta gainera besteak gezurtitzat jo.

Prentsaurreko hartan izan ziren, Udaletxearen kontrako salaketa grabeak, eta pertsona konkretu batzuen kontrako salaketa faltsuak eta zikinak. Garai hartan estatu mailan pil-pilean zegoen gaia zenez korrupzioa, eta aldizkarietan asko saltzen zuen zerbait zenez, HBk bere burua altxatu nahirik eta demagogi merkea eginez, alde guztietara akusazioak botaz eta bidean aurkitzen zituen guztiak zikinduz (eta batez ere azken helburu honekin) prentsaurreko xelebre hura antolatu zuen.

Makina bat lan egiten ari omen dira azpiak garbitzen... Nik ere halaxe uste dut, orain ari direla beraien kalumnia eta gezurrezko salaketen bidez zikindutakoak garbitzen, nahiz eta beren nahiaren kontrako ondorio bat izan. Besteak beste, Antton Erkizia jauna, lehertuta dabil, buruan beste kezkarik gabe, berak hain ziur baieztatzen zituen "ustelkeri" haiek non diren bilatu ezinean, eta hainbesteko diru aldik lapurtuak zirela uste eta pezta bat ez duela inork eraman ikusi duenean. Bi urte ta erdi daramatza berak eta beste urte bat pasa egin zuten Nafarroako Kontu Gangarako Teknikariek, auditoria egiten, banan-bana kontu guztiak ikusiz. Horrenbeste lan eta denborarekin aurkitu ez dutenerako, ez dago nonbait oker haundirik.

Hala ere esan beharra daukat, kezkarik haundiena, behe mailako sasi politika honen ondorioek ematen datela, ondorio horiek, herriak ordaintzen bait ditu. HBk prentsaurreko hura eman eta ondoren, alkatetza lortu zuenetik, Leitzen obraren bat egiten denean, hustualdi ederra hartzen dute herritarren patrikek, dena Udaletxeak eta herriak ordaindu behar izaten bait du (Industrialdeko obrak eta baserri auzoetara orain asfaltatzen ari diren pistak honen adibide garbiak dira) eta hori da Udal gestioa eramaten dutenen tzako komodoena eta errexena, baina egoera honetan herri honen garapena lortzea eta lan puestoak sortzea oso zaila da.

Aurreko legealdietan egindako lanen finantziazioaren gehiengoa herriz kanpotik lortzen zen.

Beste Alderdiak ez dira hutsgabeak izango, baina HB nagusi da trakeskerietan, eta emaitzei begiratzea aski da. Besteak beste, Nafarroako Gobernutik diru laguntzak lortu ondoren egin gabe utzi beharrak izan ziren HBren oposizio sistematikoa izan zutelako: Polikiroldegia, Plazaolako ibilbidearen errekuperazioa, Eskolako zonaldetik Azpikoerrotara zeharbidea (Industrialdera sarrera eginez), Adineko eta Ezinduentzat Apartamentu Babestuak, Mendietako Larre Hobekuntzak, etab.

Eskerrak aurreko legealdietan, kontra ibili ziren gai guztiak ezin izan zituzten atzera bota eta hor gelditu zaizkigu obra eta hobekuntza pila ederra, eta ikustea besterik ez dago. Ba da garaia, eskaparateko politika egiteari utzi, eta legealdia bukatuxe duzuenez gero, herri honentzako zerbait positiboa lortzekoa.

Ah! Mikel Hau bai. Hau nik idatzi dut.

JUAN ORONOZ ZABALETA

### Etxegarai-EAJ, manipulatuz ez gaituzue ixilaraziko

Berriz ere kaleratu behar dugu zuri, Lesakako alkate, Jose Luis Etxegarai eta EAJko gainerako udal taldeaei, zuzendutako eskutitza, beharrezkoa iruditzen zaiguna, urriaren 23an *Egin* eta bertze zenbait komunikabidetan agertutako libeloa irakurri ondoren.

Hasteko, errealitatea manipulatzen ari zara eskutitzaren egilea aipatzerakoan, edukinari erantzun gabe. Zure jarrera harroputzaz protagonismoa egozten diozu bintzotasun-gabezia eta bidegabekeriari aurre ematen dienari. Jauntxoei errealitatea manipulatzea eta salaketa kolektiboa dena «interes pertsonala» bailitz agertzea gustatzen zaie. Izan ere, bidali genuen eskutitzaren oinarria den alegazioa 100 lesakarrek baino gehiagok sinatu zuen, zihaurek ederki dakizun bezala.

Bigarrenez, zure oharrean diozu aski zutela lesakarrek zure bulegora joatea. Lotsa gutti behar da onartzeko azalpen bat lortzeko modu bakarra, ustez demokratikoa den alkate jaunaren bulegora joatea dela. Hau herria kortijotzat hartzea da.

Hirugarrenez, gure eskutitza erantzutean, batetik gezurra

Segitzen du ➾





**Bidali** TTIPI-TTAPA
**herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**
Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.
✆ 631188

## IRAKURLEAK MINTZO

diozu eta bertzetik, ez dituzu salaketaren muina diren funtsezko galderak, erantzuten:

- Zergatik zen ezinezkoa alegazio-epea luzatzea eta, orain arte, ez dira osoko bilkuran eztabaidatu? (Hilabete terdi luzaezinezko epea pasa dela).
- Zergatik udalaren gauzak gorde nahi hori? Zergatik egin zaio uko pleno-aretoan, non planoak dauden, bilera ireki bat egiteari? Zergatik ikasi behar izan dute plana lesakar gehienek guk kaleratu genuen taula bati esker?

- Zergatik ez da planean ikusten nola moldatu eta aprobetxatu herrian dauden etxe hutsak, guretzat lehentasun osoa daukan zerbait?
- Zer lehentasun dute Babes Ofizialeko Etxeek, datuen arabera familiabakarrekoak baino 4 edo 6 urte beranduago eginen direnek?
- Zer egin behar da hiltegi zahar eta harraskategiko lurrekin? "Lagunendako" etxeak? Harraskategia ez da Lesakako herri kulturaren jabegoa?
- Zergatik hainbertze etxetxo, haibertze eraikin?
- Komentua moldatu behar da Kultur Etxerako? Noiz? Nola? Zenbat areto ireki ditu Lesakak? Etabar...

Laburbilduz, HB, Lan Taldea eta bertze bizilagun batzuek sinatutako eskutitza erantzun gabe jarraitzen duzu, eta manipulatzera, irain egitera eta deskalifikatzera baino ez duzu jotzen. Eta hemen garrantzitsuena ez dira zure eskutitzak ezta gureak ere, baizik eta Plan honekin apostu egin duzuela Lesaka erresidentzial, elitezko baten alde, bizilagunen arazoei bizkarra emanez, batik bat, langabezian egon edo behin-behineko lana duten gazteenei. Hau da gure kezka eta izkutuko interesa. Eta zurea, zein da?

JUAN IGNACIO LOPEZ MERINO
ETA XABIER MARTIN YERA
(LESAKAKO LAN TALDEA)

**AURKIDI:**
**Noiz ikasiko duzu euskaraz**

Berriki herriz-herri eta etxez-etxe banatu duzue "Sasiak erretzeari..." buruzko paper eta triptikoa. Gaztelerazko bertsioan ez dago akats gramatikalarik. Euskarazko bertsioa, ordea, akats ortografikoz josa dago. Seguraski lotsagarri ez gelditzeko, konpromisoz, idatzi izanen duzue euskarazko bertsioa, bainan hori ez da aski. Seguru ez zenutela gazteleraz argitaratuko akats ortografikoak dituen testurik, bainan euskaraz, ageri denez, bai.

Euskarak eta euskaldunok eskertuko genizueke itxurakeriak alde batera utzi eta horrelakorik berriz ez egitea. Ez genuke nahi gure hizkuntza itxurakeriaren mesedetan trakestu eta baliogabetzea.

FERMIN ETXENIKE

**Okerra:**

TTIPI-TTAPAren azkeneko alean hauxe irakurri dut: "Donamarian akitu berriak dituzte Antxonekoborda, Komizkoborda eta Berrau baserrietako bideen hormigoiztatze lanak".

Hemen oker txiki bat badago: Komizkoborda ez dago Donamarian, Gaztelun baizik. Beraz, Komizkoborda ez da Donamariakoa, Gaztelukoa baizik. Zuzenduko duzuelakoan, mila esker!

MALERREKAKO IRAKURLE BAT

## KOLABORAZIOA

**Eli BELAUNTZARAN** *Aresotik*

# Gizon modernoaren kontsumoa



Eguberriak gainean ditugunean telebista piztu orduko konturatzen gara iragarkien kopurue gora egin duela eta batez ere, gizonezko koloniak edo emakumeen bitxikeria... Onartu behar dugu, bizi garen mundu honetan publizitateak, komunikabideak eguneroko bizitzan etengabe sartzearekin, egundoko garrantzia hartu duela. Kontsumoko gizarte deitzen den horretan produktuen eta zerbitzuen salmenta sustatzeko, publizitateak bazter guztietara iristeko asmoa du. Inolako dudarik gabe, emakumea erreklamo gisa eta zentroetako bat izan da orain arte. Ezin ukatuzko gauza da emakumea eta bere gorputza publizitate objetu garrantzizkoena izan dela kontsumitzailearen arreta erakartzeko, batipat gizonezkoena. Emakumea publizitaterako da edertasunaren eta erakarpen erotikoaren sinboloa.

Baina azken bolada honetan, gizonak joku berdinean erortzen ari dira. Gizartea emakume-objetuaren aurka azaltzen hasi denean gizon modernoarentzat publizitatearen industri zaharrak merkatu berri bat topatu du. Garbi ikusten da aldizkarietako edo TBko iragarkietan gantzontzilo edo bizarra kendu ondoren emateko produktuak ugaritu direla. Gainera, gizon eredu hau sortu ondoren aldizkari pila bat plazaratu dituzte, gizonentzat noski, orain arte emakume modernoaren arloa landu dutenak.

Eta hau dena, zertarako? gizona ere, kontsumitzailea bihurtu nahi dutelako. Gainera adituek diotenez, gaur egun emakumeei gustatzen zaizkigun gizonak ez omen dira garai bateko gizon indartsu haiek, orain sentsibleak omen ditugu gustokoak, politak baina buruan zerbait daukatenak. Gizon hauek kosmetikoak, kremak eta gainontzeko potinjeak erabiltzeko aukera izango dute. Espero dezagun etzaiela okurrituko gizona depilatzen hasteko ezer ez asmatzea. Ez dut uste kontsumoaren infernu horretan jarraitzeko gai izanen naizenik. Begietatik sartzen badigute iragarkietako eredua onena dela, gure nortasuna galtzeko arriskue daukagu, beraiek nahi duten bizimodue edo gizona edukiko dugu, ez guk aukeratutakoa. Orain arte kexu azaltzen baginen emakume objetua zela eta ez zela, sexuen artean berdintasuna bila ibili, edo gabiltzanok, ezin dugu onartu iragarki sexisten artean bizitzea. Azken batean iragarki hoiek ez dira errudunak, guk jabetu behar dugu erakusten diguten mundu hori ez dela onena, benetakoa ez dela. «Modernoa» izateagatik garestia atera behar zaigu, bai patriketarako, bai gure nortasunarentzako.

**Garai bateko ezkontza konpondutako haiek begi txarrekin ikusten baditugu, zergatik esan behar digute orain zein den gizonik aproposena?**

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



*Guaixe* Sakanako Hilabetekaria, 97ko azaroa

*«Ni gaztea naiz, eta horregatik oso ongi hartzen ditut dialisiaren eraginak. Hau dela eta, bizimodu normala egin dezaket».*

**Espe ANZIZAR**
Giltxurdineko gutxiegitasuna duen Lesakarra
Guaixe 97-XI

*«Nafar aunitzek ez dute zonalde hau ezagutzen, Belate oztopo fisiko eta sikologikoa zen, lainoen, elurren eta hormaren kontuagatik batez ere. Hagitz traba garrantzitsua zen».*

**Manolo LIZARDI**
Bertiz Turismo Partzuergoko gerente ohia
Diario de Navarra 97-XI-28

## 11 GALDERA LABUR



**Txomin GEREÑO**
Garraiolaria
ARESO

- **Ehizarako, kotoan edo herriko mendietan?**
- Herriko mendietan, noski.
- **Zigarro hitzak zer esaten dizu?**
- Bizitzaren murrizketa, bizitzeko kalitatea jaitsi, zigarroarekin hil edo zigarrorik gabe bizi.
- **Osasuna zaindu beharra dago edo patuan sinesten duzu?**
- Osasuna zaindu, zahartzarora hobeto ailegatzeko.
- **Garraiolariak orokorrean "bibidoreak" al dira?**
- Lanbide gogorra da eta "bibidoreak" gutxi.
- **Aldatuko zenuke zure ogibidea?**
- Horixe baietz, etxetik kanpo asko ibili beharra daukat eta…
- **Zer moduz etxean hiru emakumerekin. Haien mende al zaude?**
- Ez, ezta pentsatu ere. Eta gainera, mimatua.
- **Eguberrietan loteria tokatuz gero…?**
- Gustatuko litzaidake zinea egiten duten toki batera joatea, adbidez Hollywoodera.
- **Esaten duten bezain txarrak al dira emakumeak gidari?**
- Ez, emakume gidari oso onak ezagutzen ditut.
- **Gogoratzen al duzu azken parranda?**
- Bai, herriko jaietan.
- **Munduko zein tokitara joango zinateke bidaian?**
- Tourrera, Alpeetako etapak ikustera.
- **Aztia izanez gero, desio bat?**
- Bakea eta lanbidea denontzat.





Polo
Nafarroan egindako autoa nafarrentzat

25 urte zuen zerbitzura

SAMPI ARAGON
Leitzako errepidea
✆ 450354 / 450759
DONEZTEBE

☞ BELATE

## Belateko tunelen inauguraziora joateari uko egin diote zenbait alkatek

Arantza, Donamaria, Etxalar, Ezkurra, Saldias eta Zubietako alkateek, Belate eta Almandozko tunelen inauguraziora joateko gonbitea jaso ondoren, *«tunelak trafikoari zabaltzea albiste oso pozgarria bada ere, gonbite hau errefusatu egin dugula»* adierazi dute komunikatu baten bidez.

Belateko arazo historikoak gaindituko dituen egun hau zonaldeko biztanleontzat alaia dela eta jai giroan ospatu nahiko luketela adierazi ondotik, *«inaugurazioan parte hartzera ekarriko duten errege espainiarraren etortzeak guztiz iluntzen du ospakizuna»* alkate hauen ustez.

Erregea, Espainiak Euskal Herriari egiten dion errepresioaren eta Euskal Herria bere buruaren jabe ez izatearen arduradun nagusitzat jo ondotik, tunelak egiteko eta inauguratu ahal izateko pausorik eman ez duela diote: *«merezi ez duen ospea eta meritoa eman diote hemengo agintari nabarristek»*.

☞ EUSKARA

# Txeke elebidunetan idazten ahal da Iparraldean

## Hiru banketxetan eskaintzen dute aukera

TTIPI-TTAPA

Euskararen erabilpenaren eta bereziki txekier elebidunen eskatzeko, aurten kanpaina bat aitzinera eraman dute banketxeei buruz Iparraldean, Euskal Konfederazioa, Seaska eta Euskal Herrian Euskaraz erakundeek.

Orai, kanpaina horren emaitza eskuartean dute, hiru banketxek egin txekier elebidunak: Banco Bilbao Vizcayak bezero guzientzat, Crédit Agricolek eta Crédit Mutuelek galdatzen dutenentzat bakarrik. Kanpainaren bultzatzaileek diotenez, *«haatik, euskaltzaleek segitu beharko dugu galdatzen txekierreko beste paperak eta helbideak euskaraz eman ditzaten»*.

Postak, BNPk eta Société Généralek eza eman dute eta beste bankuek deus ez badute erran ere, *«Inchauspe, Caisse D'Epargne eta Gipuzkoa Donostia kutxarekin egin dugun lan bereziak ez du arraposturik ukan»*.




**Euskal Konfederazioa, Seaska eta EHEren kanpainak txekierrak euskaratzea lortu du**

Kanpainaren arrakasta osoa izan ez bada ere, kanpainaren antolatzaileen ustez *«urrats bat gehiago egina dugu euskararen erabilpenaren normaltzeko, euskaldunak bezero gisa zerbitzu egokien galdatzeko talde zabal eta ondoriotsua garela erakutsi dugu»*. Hemendik aitzin eginen dituzten kanpainek fruitu ugariago emanen dutela erratearekin batera, *«bideseinale elebidunek Euskal Herrian garela erakusten duten bezala, txekier elebidunek erakutsiko dute harreman komertzialetan ere euskarak balio duela»* uste dute.

## Euskarazko produktuen katalogoa banatuko da ikastetxeetan

Eskualdeko ikastetxeetan dauden 3 eta 16 urte bitarteko ikasleei *Euskarazko produktuen katalogoa* banatuko diete Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako Euskara Zerbitzuek. Katalogo honetan gurasoek gaur egun merkatuan dauden euskarazko joku, jostailu, material informatiko, aldizkari, material didaktiko, bideo, liburu zein disken berri aurkituko dute. Produktu hauen gaineko informazio zehatza (non erosi, prezioa...) tokian tokiko Euskara Zerbitzuetan emanen dute. Datozen Eguberrietarako, produktu *euskaldunak* erosteko aukera, beraz.




Aranguren
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Dia %
Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
✆ 63 14 03 • BERA

## BERA

# Igandean Mugalarreen Akordioa berritu zen Lapurdiko herriekin

### Hitzarmen honek herrien arteko administrazio muga ezabatzen du

ASIER GOGORZA

Bera eta Sarako Udalek antolatuta, XVII. mendeaz geroztik bortz urteka errepikatzen den ohitura bete zuten joan den igandean Azkaine, Urruña, Biriatu, Sara eta Berako agintariek, horrela herrien arteko administrazio-muga ezabatu eta lurralde osoan Bazkak eta Urak probexteko aukera emanez behar duenari.

Ekitaldia Lizuniagako Mahai Harrian ospatu zen, eta "Lamixine Bat" antzerki taldeak fazerien inguruan antzeztutako antzerkilanarekin hasi zen besta berezi hau. Ondoren ohorezko aurreskua dantzatu zen ohitura den bezala, eta segidan Udal desberdinetako arduradunek Fazerien Hitzarmenaren berritzea sinatzera jo zuten.

Eguerdian, ordea, Sararat bildu ziren denak, han Zikiro-jate ederra baitzuten esperoan.



**Hori onddoa!**
Ramón Zubietak kilo eta hirurehun gramoko pisua duen onddo hau harrapatu zuen azaroaren hondarraldera, Lizuniaga eta Lizarieta artean. Argazkia ateratzeko orduan oraindik frexko-frexko zegoen onddoa, ikusten ahal denez.

Arg.: Aitor

### flash



**Joseba Iturralde**
21 urteko beratarra erremontelari profesional bezala arituko da hemendik aitzinera. Joseba, profesional izandako Pepe Iturralderen semea da eta gibeleko koadroetan aritzen da.

**Udal zergak**
Abenduaren 31 arte zabalduta dago 3. hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren exekutibo bidez kobratuko dira, gastuak eta interesak gehituta.

### "Herriak eta Hiriak" abenduaren 14an abiatuko zaigu Beran

Kultur Hilabetea joan den asteburuan hasi bazen ere, Azkaingo herrian izan ziren ekitaldi guziak, eta gain-gainean dugun asteburu honetan ere Etxalar eta Saran izanen dira mintzaldi nahiz kontzertuak.

Igande honetan ez, hurrengoan, ordea, eskola guzietako haurrentzako zabalik zen Literatur Lehiaketako sariak partituko dira Berako Kultur Etxean. "Herriak eta Hiriak" gaiari buruzko beren ipuin edo gertakizunak leitu beharko dituzte sariztatuak subertu direnek, eta ondoren Dantza Moderno Saioa eskeiniko digu «Ekarle» dantza taldeak. Espreski haurrei begira Mizel Théret-ek asmatutako koreografia antzeztuko dute iparraldekoek: "Mendiko Ziganteak" izena du obra horrek.

### Bidasoako XI. Bertso-Paper Lehiaketako sarituak

Joan den hilabete erdialdera ospatu zen Iamotenean Bidasoako XI. Bertso-Paper Lehiaketako sari banaketa, eta ondoko hauek izan ziren sarituak:

**10 urtez beheitikoetan:**
Ander Rodrigez Kortaren *'Egunerokoa'* bertsoak. Jon De la Cruz-en *'Nere arrebarekin borrokan'* eta Ane Bergara Artiedaren *'Igeri ta futbola'*.

**10 eta 14 urte bitartekoetan:**
Celia Ordoki Rudiren *'Hiesa'*, Maite Bidarte Sotaren *'Liburua'* eta Joseba Olagarairen *'Ijitu ume baten bizi madarikatua'*.

**15-17 adintartekoak:**
Xabier Terrerosen *'Bihotzeko sekretuak'*, Julen Zelaietaren *'Hara! Hau ni naukta'* eta Miren Bidarteren *'Ametsetik errealitatera, errealitatetik amesgaiztora pasa zaren horri'*.

**18 urte baino gehiagokoak:**
Xabier Silveira, *'Adimena etsai'*.
Jon Abril, *'Teknologiarekin jolasean'*.




© 631076 • BERA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, © 63 05 98
BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 63 00 83 BERA

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

# LESAKA

## Beti Gazteren Argazki Lehiaketarako azken egunak

Igande honetan, abenduak 7, akautuko da Beti Gazte elkarteak, udalaren eta zenbait erakunderen laguntzaz, zazpigarren urtez antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea.

Beti bezala, nahi duten afizionatu guziek parte hartu ahal izanen dute, gehienez hiru argazki aurkeztuz. Hori bai, argazkiak paperean eginikoak izan beharko dute –ez diapositibak–, txuri-beltzean nahiz kolorez eta bakoitza 30x40 zm.ko kartulina batean jarrita.

Gainerako baldintzak joan den urteetan bezalakoak dira. Bidaltzeko modua ere, gisa honetako lehiaketatan erabiltzen dena izanen da (lanaren gibelean izenburua eta bertze sobrean egilearen datuak), helbide honetara: *Beti Gazte elkartea; Beheko Plaza, 9; 31770 LESAKA.*

Sariei dagokienez, irabazleak 20.000 pezeta eskuratuko ditu eta bigarrenak 15.000 pezeta. Beti bezala, 15.000 pezetako sari berezia emanen zaio kirol argazki onena aurkezten duenari.

Erabakia erakusketa irekitzen den egunean ezagutuko da, hau abenduaren 21etik urtarrilaren 11 bitartean zabalik egonen delarik elkartean.



**Euriak Feria Eguna pixko bat narrastu bazuen ere, hainbat azienda eta jende bildu zen herrian** Argazkia: Aitor

# 65 azienda aurkeztu ziren feria egunean

### Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende aunitz bildu zen herriko karriketan

**AITOR AROZENA**

Eguraldi ilun xamarra izan zen arren hiru-tan hogeitabortz azienda aurkeztu ziren plazara Bortzirietako Feria Egunean.

Gehienak zaltabereak ziren, berrogeita bi behor eta zaldi. Hauen artean Fermin Otxotekok aurkeztutakoak irabazi zuen lehen saria, Jose Antonio Anduezak bigarrena eta Jose Maria Telletxeak hirugarrena.

Hemeretzi behien artean aurkezpen hoberena zuen aziendari emandako plaka Berreu baserriko Juan Antonio Prietok eraman zuen. Haragitako behietan ere, hiru lehendabiziko sariak abeltzain honek jaso zituen, honenbertzez 70.000 pezeta poltsikoratuz.

Holandesetan, sari bakarra banatu zen, lehen saria eta hau Makukobordako Luis Olaetxearen behiarentzat izan zen. Suitza arrazako behietan ere, hiru lehendabiziko sariak Makukobordako nagusiarentzat izan ziren. Beraz, sarietan hogei mila duro baserriratu zituen Olaetxeak.

Azkenik, lau ahare aurkeztu ziren, lehen saria Arantzako Benito Elizondorenak eskuratuz. Bigarrena Lazaro Mujikak etxeratu zuen eta hirugarrena Jose Mari Erkiziak.

**BITXIKERIAK**

Plaza inguruan eta Bittiria karrikan paratutako postuen artean, Huarte baserritik ekarritako errota elektrikoa azpimarratu daiteke, eskulan postuekin batera.

Bertzalde, feria bezperan burututako ajoarriero lehiaketan 5 elkarte aurkeztu ziren. Beti Gazteko Ramon Etxenike eta Patxi Oteiza suertatu ziren garaile.

## flash

**Jubilatuak Tolosara**

Abenduaren 20an, San Fermin Jubilatu elkarteak Tolosako Gabonetako azoka berezia bisitatzeko asmoa du. Goizeko 8etan abiatuko dira plazatik eta feria bisitatu ondotik Tolosa inguruko jatetxe batean bazkalduko dute. Itzultzerakoan, Donostiako Garbera zentru komertziala bisitatuko dute. Bidaiaren prezioa, dena barne, 2.000 pezetakoa da eta txartelak abenduaren 17a edo autobusa bete baino lehen hartu behar dira elkartearen ostatuan.

**EAJkoak Bilbora**

San Frantzisko egunean Bortzirietako PNV-EAJk antolatutako bidaia egin da Bizkaiara. Arteako Museoa, Bilboko Sabin Etxea eta berriki irekitako Guggenheim museoa bisitatu dituzte.

**Su-hiltzaileen parkeko**

eraikuntza lanak *Pavimentos de Navarra, S.A (PADENASA)* enpresak eginen ditu 29.724.385 pezetaren truke (BEZ barne). Enpresa hau izan zen proposamenen bar aurkeztu zuen bakarra. Lanen zuzendaritza Jokin Pastor-en esku izanen da.

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 637791 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ✆ 63 79 44
LESAKA

# ETXALAR

# Uso ehizaldia motel bukatu da

## Sarezko bertze usategietan ere antzera ibili dira

PELLO APEZETXEA

102 dozena uso harrapatu eta, ez dute usazaleek pozez jauzika aritzeko, gastuak ez baitira estaliko. Hala ere, txarragoak izan diren urteak gogoratuz kontsolatu beharko dute, berrogei dozena gutiago harrapatutako urteak. Aurtengo denboraldiak berezitasun batzuk izan ditu, errate baterako, azaroarena, azaroa hagitz eskasa izan baita, aspaldiko urteetan baino eskasagoa, 9 dozena uso bertzerik ez. Eguraldi txarra ere aipatzekoa da, hego haizea eta euria. Ez da maiz gertatu izanen, hamaika egunez sareak ezin paratu eta txabolan egon beharra. Gutiago pasatu da? Gerardok hala zion, joan eta itzuli ibili dela usoa, eta, bazka badelako eta, bertan uso gehiago gelditu ote den. Dena den, bertze sarezko usategiek ere ehizatze ttikia izan dutela diote, hemengoa baino ttikiagoa, arabera.

### Azaroaren bigarren asteburuko ekitaldiak errekista haundia izan dute

Bereziartua medikuaren solasaldian jende multzo polita bildu zen, eta gogoz entzun zuena, jateko eta osasunaren inguruko hainbat gauza. Azaroaren bigarren larunbateko txisteafarira, berriz, gauza berria izanagatik, jantokia betetzeko hainbat jende bertaratu zen. Eta, denek diotenez, atsegiñez eta kontent pasa zuten berandu arte, herritarrek nahiz kanpotik etorritakoek.




**Lehen gaizki zegoena, orain ere gaizki**
Etxalarko Benta nola aldatu den jakinda, errex asmatuko duzue ez dela oraingo argazkia. Bidegurutzeko seinalean ageri dena, ordea, berdin-berdin segitzen du, gaizki jarria. Lizarieta dena *Zizaieta* edo *Zizayeta* bezala «bataiatu» dute.
Artxiboa

### 'Herriak eta hiriak' Kultur hilabeteko ekitaldiak Etxalarren

«Herriak eta hiriak» Kultur Hilabetearen antolaketan aritu da Altxata elkartea, Lapurdi eta Bortzirietako bertze zenbait elkarterekin batera. Herrian, abenduan zehar hainbat ekitaldi eginen dira. Ondoko hauek dira lehenbizikoak.

**Abenduaren 5ean**, ortzirala, Alizia Sturtze historialaria mintzatuko da. Gaia: 'Sorgintasuna'. Eskola Zaharretan, arratseko 8etan.

**Abenduaren 7an**, igandea, Bortzirietako *'Giltzarri'* gazte abesbatzaren kantaldia, Isabel Lacarren zuzendaritzapean. Elizan, eguerdiko 12etan.

**Abenduaren 13an**, larunbata, Bertso eta Txiste Afaria: Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Xabier Silveira eta Lasarteko txiste kontalariekin. Herriko Ostatuan, arratseko 9etan.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR


EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
✆ 63 01 55
BERA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA


✆ 635290
ETXALAR
udazkeneko Menu berezia
HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Ehiza Fianbreak
Odolkiz betetako aza pastela
Ilar eta Pikillo saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko era zaharrera prestatutako usoa, galeper arrautze eta gaztain pureaz lagunduta
Gaztain eta Txokolate Pastela
2.900 pta.
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

IRU BIDE ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

LEGARRA
Legarrea, 9 • ✆ 63 70 30 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak

## IGANTZI

# Padenasa enpresak 46 milioi pezetatan eginen ditu frontoia estaltzeko lanak

Bertzalde, etxe guziak zenbakitzen ari da Iberdrola

OSKAR TXOPERENA

46 milioi inguru gostako da Igantziko frontoia estaltzea, udalbatzak azkeneko plenoan onartutako proposamenak dioenaren arabera. Padenasa enpresak eginen ditu lanak, berea izan baita udaletxean aurkeztu den eskeintza bakarra. Batzar berean, frontoiak hartu behar duen baratzaren jabearen eskaera onartu zen. Orain daukaten garajearen berdintsua egitea eskatzen zuen eta nonbaitetik sarrera bat egitea, ibilgailuak sartu ahal izateko.



**Mus eta partxis txapelketak**
Prest egon beharko dute mus eta partxis zaleek neguero jokatzen diren Biltoki eta Zahar Etxeko txapelketak hasteko punttuan egonen baitira. Hemen agertzen direnak, Zahar Etxean lehendabiziko aldiz jokatu zenean, finaletara ailegatu zirenak dira Argazkia: Oskar

### Igantziko etxeak zenbakitzen ari da Iberdrola

Aintzindu xamarra daukate Iberdrolako langileek herriko etxe guziak zenbakitzeko lana. Kolore desberdinetako zenbakiak paratzen dituzte, auzoen arabera, eta egia erran, hagitz etxe guti dira betiko zenbakiarekin gelditu direnak. Ez genuen herritarrok zenbaki horien behar haundirik ikusten, baina, kanpotik helbideren bat bila heldu denarentzat bentaja haundia dela ezin ukatu.

### Azienda deklarazioa

Abenduaren 10 eta 11n izanen dira urteroko azienden deklarazioa egiteko egunak. Interesatuek Herriko Etxera joan beharko dute goizeko 7etatik 1etara.

### Igantzi-Lesaka errepidea

Goiz eta arratsaldez, lanean ari diren bitartean, itxita dago Lesakara doaien errepidea. Ikustera egon direnek hagitz ongi gelditzen ari dela diote, ez ezagutzeko moduan. Orain traba pixko bat izanen da, bertako baserritarrentzat batez ere, bainan, abenduaren 10erako akautua egon behar duenez, ez da hain luze joanen ere.

### Xorroxinekoen bazkaria

Joan den larunbatean, azaroak 29, Igantzin izan genituen Xorroxin irratiko langile eta laguntzaileak, urtero egin ohi duten lagun arteko bazkarian.


MARTIKO
*Gure baserrietako produktuak*
*© (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13*
*Zalain Poligonoa, BERA*

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA


LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera © 630735
Irun © (943) 622305

ttipi-ttapa
*6.500 harpidedun*
*23.000 irakurle*



LESAKA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZAUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 627572 • Faxa: 637313

## ARANTZA

# 100 milioi pezetako aurrekontu izanen du aurten Herriko Etxeak

### Inbertsioetan 40 milioitik goiti erabiliko dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxeak aurten 100.215.719 pezetako diru-sarrerak eta 99.520.244 pezetako gastuak izanen ditu, alegazioak aurkeztu ez direnez, udal aurrekontua behin betirako onartu ondotik.

Gastuei dagokienez, haundienak (40.268.194 pezeta) herriak eginen dituen inbertsioetan joanen dira. 15.373.385 pezeta ondasunak eta zerbitzuak erosteko gastatuko dira eta langileen soldata ordaintzeko 15.125.512 pezeta erabiliko dira.

Diru-sarrerak, berriz, zerga ezberdinen bidez (16 milioi terdi pasatuak), tasa eta bertze diru-sarreren bidez (11.835.436 pezeta) edo transferentzia arrunten bitartez (22.517.463 pezeta) etorriko dira.



Eskolako haurrek antzerki emanaldi berri bat eskainiko dute Artxiboa

Gainera, Nafarroako Gobernuko subentzioetatik 29.010.464 pezeta eskuratzea espero du Herriko Etxeak.

### Gazte Asanbladaren batzar orokorra

Azaroaren 22an Gazte Asanbladak bilera orokor bat egin zuen, hurrengo hilabetetan antolatuko diren ekitaldiak zehazteko. Bertan, nahiko proposamen eta idei onak atera ziren. Oraingoz, gehien nabarmendu dena, eskiatzera egun pare batez eginen den ateraldia izan zen. Bilera akautzean, opilak afaldu zituzten Aterpen.

Bertzalde, joan den aleko okerrak zuzendu, Rafael Gurrearen aitzinean egin zen protestaldia ez zen Gazte Asanbladaren izenean egin, gazte batzuen ekimenez baizik.

### Eskolako antzerki emanaldia abenduaren 14an

Abenduaren 14an izanen dira eskolako haurrek prestatzen dituzten antzerki emanaldiak. Gainera, egun horretan bertan, bi antzeslanen arteko tarte batean eginen da bertako haurrak saltzen ari diren zarearen zozketa. Beti bezala, dirua urtero antolatzen duten ikasbidaiarako izanen da.

### Ganbara Musika abenduaren 8an

Udazkeneko Biraren barrenean, abenduaren 8an, astelehena, herriko elizan, arratseko 7,30etan *«Quarttetto Concertante»* Ganbara Musika emanaldia izanen da.


LIKIDAZIOA
% 40ko DESKONTUA




*Opariak, boltsoak, karterak, erlojuak, manikura kutxatilak, bitxiak, zeramikazko irudiak, gerrikoak*

*Eguberrietako apaindurak (bolak, ...)*

***Aprobetxatu! Berehala dira Eguberriak***

DROGUERIA MOLINERO

Eztegara 19 • © 63 02 40 • BERA




ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Caramelo
- Ralph-Lauren
- Lacoste
- Genfis
- Barbour
- Redskins
- Bonaventure
- Diesel
- Liberto Club
- Scotch & Soda
- Chevignon
- Replay • Levi's...

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

*Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 • IRUN*




EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264

## SUNBILLA

# Kanpineko denboraldi bukaerako afaria azaroaren 15ean ospatu zen

## Olentzeroko entsaioak hastera doaz

JAIONE ETA ALBA

Azaroaren 15ean, larunbata, kanpineko aurtengo denboraldiari agurra emateko, herri afari ederra ospatu zuten. Hirurogei bat pertsona bildu ziren bertakoek prestatutako jaki goxoak dastatzera eta ez zen adar-jotze faltarik izan: plater azpian armiarmak aurkitu zituzten batzuk eta azukrearen ordez, kafeari *pika-pika* bota ziotenak ere izan ziren. Afaldu ondoren Jalisko eta bere turuta, Xenxaulo junior, Josune eta Ainhoa eta Usurbilgo trikitilariek giroa alaitu zuten. Goizalderarte luzatu zen besta, eta orain Aste Saindura arte egon beharko dugu kanpina berriro idekitzearen zain.



**Aurten ere olentzeroa ikusiko da herrian barna. Prestaketarako bilera larunbat honetan izanen da Arantxaren garajean** Artxiboa

### OLENTZERO ENTSAIOAK

Berriro ere hemen dauzkagu Eguberriak eta beraiekin batera Olentzero heldu zaigu. Urtero bezala, Olentzeroren prestaketa aste pare bat lehenago hasiko da. Horregatik, larunbat honetan, abenduak 6, bilduko dira. Parte hartu nahi duten guziek Arantxaren garajera joan behar dute goizeko 11,30etan.

### ANTZAKAITZ KULTUR TALDEAREN BILERA

Larunbat honetan, abenduak 6, Antzakaitz Kultur taldearen bilera garrantzitsua burutuko da Fonda ostatuan, arratsaldeko 3,30etatik aitzinera. Bertan, kabalgata eta bertze zenbait gaiei buruz solastuko da. Kultur taldetik adierazi dutenez, gaien garrantzia dela eta, ahalik eta partaide gehien etortzea komeni da.

## BERTIZARANA

### 33 milioiko udal aurrekontua izanen da aurten

33.693.793 pezetako aurrekontua izanen du aurten Bertizaranako Herriko Etxeak.

Gastuei dagokienez, inbertsioetan 9.754.058 pezeta gastatuko dira, bertzeak bertze Herriko Etxeko plaza eta Zabala etxeko bidea zolaberritzen, ordenagailua erosten edo Hirigintza Planaren erredakzioan. Soldatek 6.621.522 pezeta eramanen dute. Dirusarrerei dagokienez, 11 milioi zergen bidez lortuko dira eta 3.463.868 pezeta Nafarroako Gobernuaren subentzioen bidez.

### MUS TXIMISTA

Joan den azaroaren 23an hasiera eman zitzaion Bustitz ostatuko mus txapelketa azkarrari edo mus-tximistari. Udara bitartean, igandero jokatuko dira partidak, arratsaldeko 5ak inguruan.

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE


Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

## DONEZTEBE

# Maisuen Etxeko bortz pisuen enkantea egin da

DBHko Eskola Kontseilua datorren astean aukeratuko da

TXEMA ALDABE

Udalak ezarritako epe barrenean bederatzi eskaera aurkeztu ziren, Maisuen Etxebizitzako bortz pisuez jabetzeko. Abenduaren 12an eginen den udal bilkuran erabaki ofizialaren berri emanen bada ere, ondoren aipatzen diren eskaerak izanen dira pisuak eskuratuko dituztenak: 1. eskuina pisua Alizia Fiuzak 4.550.000 pezeta. 2. eskuina Socorro Belarrak, 6.853.000 pezeta. 2. ezkerra Luzio Juanikorenak 6.800.000 pta. 3. eskuina Alizia del Castillok 7.007.000 pta eta 3. ezkerra Mª Carmen Gelbenzuk 4.550.000 pta. Gainerako lau eskaerak kanpo gelditukodira, aurkeztutako kopuruak bertzeak baino baxuagoak direlako.

### DBHko eskola kontseilurako hauteskundeak

Doneztebeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (ESO) Eskola Kontseilurako hauteskundeak abenduaren 9 eta 10ean eginen dira. Asteartean errekreo ondoan ikasleen ordezkariak aukeratuko dira. Asteazkenean, eguerdiko 1,30etan zerbitzuen ordezkaria eta arratsaldeko 3etatik 6etara gurasoen ordezkariak.




### Erremontelari profesional berriak

Hemendik aitzinera bi pilotari profesional berri izanen ditugu herrian, Jose Javier Etxeberria atzelaria eta Francisco Favier Iribarren aurrelaria. Biek 24 urte dituzte eta Euskal Jai frontoiko eskolan aritu dira. Etxeberria, berriki arte profesional izandako Patxiren anaia da, 1,89 metro neurtzen du eta 84 kilo ditu. Iribarrenek berriz, 1,74 neurtzen du, 73 kilo pisatzen du eta laxoan ere aritu da azken urteotan. Argazkia: Diario de Noticias

### Erreka eskubaloi talde nagusia bikain ari da

Erreka eskubaloi taldea bikain ari da helduen mailan eta lehenbiziko fasea akitzeko partidu bat falta denean lehenbizikoa da sailkapenean. Azkeneko partidua datorren larunbatean, abenduak 14, jokatuko dute. Bigarren fasea berriz, hiru sektoretako lehenbiziko biak jokatuko dute, hau da, sei ekipo. Euren arteko ligaxka hilbeltzaren 11tik aitzinera jokatuko dute.

Jubenilak, aldiz, ez dabiltza hain ongi eta azken postuetan akitu dute 1. fasea. Hauek ere jokatuko dute hurrengo ligaxka, baina 5. postutik gibelera sailkapena erabakitzeko.

## flash

**Zinea**
Abenduaren 13 eta 14ean *«Contac»* pelikula eskainiko dute Doneztebeko zineman. Larunbatean, gaueko 10etan eta igandean, arratsaldeko 5etan eta 8etan.

**Eskola haunditze eta berritze lanen** inaugurazioa egin da abenduaren 2an. Bertara gonbidatu franko zeuden, erraterako Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduko buruak, inguruko herrietako alkateak eta eskoletako zuzendariak eta Eskolako kontseilu kideak. Asteartekoekitaldian, egin diren moldatze lanak eta obra berriak ikusi ondoren merendu edo luntx goxo batekin ospatu zuten.

ARIN ASEGURUAK
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE
• Kotxeak
• Kamioiak
• Etxebizitzak
• Enpresak
• Istripuak
• Bizitza
• Aurrezkia
• Bertzeak

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

ttipi-ttapa
6.500 harpidedun
23.000 irakurle

ALDABE TAXIA
DONEZTEBE
✆ 450687

EKAITZA TABERNA
Gosariak • Bokatak • Pintxoak
DONEZTEBE
(Osasun Zentroaren parean)
✆ 451766

## MALERREKA

# Iturengo Kultur Egunak asteburu honetan ospatuko dira

## Hainbat ekitaldi antolatu ditu Ibintza taldeak

IBAN ISASI

Ibintza kultur taldeak antolatuta aurten ere Kultur Egunak ospatuko dira abenduko lehen asteburuan. Egitaraua honako hau da:
**Ortzirala, abenduak 5:** Iturengo trikitilarien kalejira, arratseko 8etan. 9etan, antisorgailuei buruzko hitzaldia Herriko Etxeko ganbaran, Cofes-Haizearen eskutik. Ondotik, talo edo artopil jatea izanen da.Gaueko 11tan, zine emanaldia leku berean.
**Larunbatean, abenduak 6:** Goizez dantza ikastaroa. Arratsaldez, karaokea haurrentzat eta berendua. Gauez, rock kontzertua burutuko da Herriko Etxeko arkupean.
**Igandea, abenduak 7:** Goizez futbito txapelketa eta arratsaldeko 7etan antzerkia Herriko Etxeko ganbaran. Ramon Soroiz aktore famatuak (ETBko *Joxe Lontxo* eta *lehendakaria*) *«Umekeriak»* lana aurkeztuko du. Ondotik bertso-afaria Altxunea erretegian, Amuriza eta Peñagarikanorekin. Azkenik, goizaldeko 1etatik aitzinera dantzaldia Mundiñano anaiekin.

Kultur Egun hauetaz gain, aurreko asteburuan zenbait ikastaro izan ziren, kimatze, dantza, zanko eta txalaparta ikastaroak, hain zuzen.



### 170 gaztek parte hartu dute Aste Berdean

Nafarroako hainbat institututik 170 gazte izan ditugu inguru honetan urri bukaeran eta azaro hasieran, Aste Berdea kanpainaren barnean. Kanpaina hau Bertizko Turismo Partzuergoak antolatua da, hemengo zenbait aterpetxe edo albergerekin batera eta Nafarroako Gobernuak lagundua. Denetara sei talde egon dira, hiru Narbarteko BKZren aterpetxean, bi Beintzakoan eta bat Doneztebeko IKAn. Bakoitzak hiru eguneko egonaldiak egin ditu eta goizetan kirol ezberdinak egiteaz gain, arratsaldez ingurugiroa, bertako kultura, artisautza, etabar... ikusi eta lantzeko aukera izan dute. Antolatzaileek hagitz balorazio ona egin dute eta datorren urterako antolaketa hobetzea pentsatu dute.

# Juanjo Urrutia Saldiasko pilotaria trafiko istripuan hil da Belaten

## Ogibidez su-hiltzailea zen Oronozko parkean

TTIPI-TTAPA

Juanjo Urrutia Juanenea, 33 urteko pilotari saldiastarra azaroaren 24ko goizean hil zen auto istripu batean. Goizeko 7,30ak aldera izan zen istripua, Belaten. Pilotaria Doneztebetik Iruñera zoaien, suhiltzaile hobekuntza ikastaro batera eta zaldi bat atera zitzaion errepidera. Hura ez harrapatzeagatik alde batera egin eta paretik zetorren kamioneta bat jo zuen Urrutiak. Bertan hil zen.

Juanjo 1964ko urriaren 27an jaio zen Saldiasen. Gaur egun Donezteben bizi zen, ezkonduta zegoen eta hiru hilabeteko alaba zuen. Oronozko su-hiltzaile parkean aritzen zen lanean. Horretaz gain, komunikabideoi laguntzen ere aritua zen, bai Xorroxin irratian, baita TTIPI-TTAPA aldizkarian ere, Saldiasko berri emanez.

Pilota munduari dagokionez, Urrutia sortu berria den ASPE enpresako partaidea zen, enpresa sortu duten sei pilotarien artean zegoen. Oraindik akitu ez den Euskadiko lau terdiko txapelketan ere hartu zuen parte eta finalerdietaraino ailegatu zen. Bi gai hauetaz solasteko elkarrizketa zabala karrikaratu zen gure kirol orrialdeetan (TTIPI-TTAPA, 216.ZKIA). Txaruta pilota elkartean ere monitorea zen. Juanjo Atxak gogoratzen duenez, *«galera haundia da, 10 bat urte zeraman monitore gisara, ttikienekin lehenbizi eta orain 14 urtez goitikoekin. Bera izan zen gimnasioa lortzen gehien saiatu zena».*



**Lau terdiko pilota txapelketa ofizialean parte hartu berria zen Juanjo Urrutia** Artxiboa

1997ko abenduak 4/17. zenbakia

EUSKARA BATZORDEEN

# Berriak

*Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Argitalpena*

**Argitaratzailea**: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
**Montajea eta Maketazioa**: ttipi-ttapa

## Baserri eta bidagurutzeen errotulazioa

Badira urte batzuk gai honekin bueltaka gabiltzala. Halere, iduri du 1998an gure herrietako baserri eta bidagurutzeetan errotulo eta panelak jartzeko aukera izanen dugula. Izan ere, egitasmo hau aitzinera eramateko 1.029.000 pezetako dirulaguntza eman baitu CEDERNA-GARALUR elkarteko Leader Programak. Beraz, Bortzirietako Udalek berriz ere gai hau aztertu eta ontzat eman badute, egitasmoa martxan jarriko dugu. Gainera, Europako Batzordeari ere dirulaguntza eskaera eginen dio Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak, honek hizkuntza gutxituak bultzatzeko egin duen deialdian espreski agertzen baitu dirulaguntzak emanen dituela errotulazio eta seinalizazio egitasmoetarako.




Euskarazko produktoen katalogoan, merkatuan gaur egun euskaraz dauden jostailu, material didaktiko eta informatiko, liburu, diska edo aldizkarien berri ematen dugu

## Irrati-lizentzien banaketa

Nafarroako Gobernuak laister irrati-lizentziak banatuko ditu eta horretarako lehiaketa publikoa eginen du. Guzira zortzi dira banatuko dituen lizentziak, bi Iruñeari ematekoak eta gainerakoak Nafarroako bertze udalerriei ematekoak. Horietako bat Lesakari dagokio. Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak, azaroaren 25ean egindako bileran, mozio baten bidez lizentzien banaketa egiterakoan euskara eta euskaldunen eskubide eta interesak kontuan hartzeko eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Halaber, Lesakako lizentzia banatzerakoan, euskara hutsez emitituko duten irratiei lehentasuna ematea ere eskatu du. Gai honi buruzko informazioa gehiago nahi baduzue, hurrengo orrialdean, Xabier Ballarena, Xorroxin Irratiko lankideari egindako elkarrizketan izanen duzue.

## Euskarazko Produktuen Katalogoa

Heldu den astean Bortzirietako ikastetxeetan dauden 3 eta 16 urte bitarteko ikasleei argazkian ikusten ahal duzuen katalogoa banatuko diegu. Katalogo honetan gurasoek gaur egun merkatuan dauden euskarazko joko, jostailu, material informatiko, aldizkari, material didaktiko, bideo, liburu zein disken berri emanen dugu. Izan ere, gure herrietako haur gehienak eskoletan euskaraz ikasten ari badira ere, eskolorduz kanpoko jarduerak (ikastaroak, kirola...) eta kontsumitzen dituzten produktuak gehienetan erdaraz izaten baitira. Horretaz gain, euskaraz produktu aunitz dauzkagu gaur egun eta gehienko ez dugu hauen berri. Katalogoan agertzen diren produktuen gaineko informazio zehatza (non erosi, prezioa...) Euskara Zerbitzuan emanen dugu (634125 telefonoa). Eman zuen seme-alabei euskarazko produktu hauetaz gozatzeko aukera, izan dadila *euskara* zuen seme-alabendako *etxean senide eta karrikan adiskide.*

## Aceralia-ra bisita

Aceraliako enpresa-komiteak eskatuta, azaroaren 26an Bortzirietako Euskara Mankomunidadeko lehendakaria eta teknikaria bertan izan ziren. Bisitaldi honen helburua, komiteak enpresa barruko errotuloak euskaratzeko duen egitasmoa martxan jartzeko Mankomunidadeari laguntza teknikoa eta aholkularitza eskatzea izan zen. Beraz, badirudi lan munduan ere euskarak sarbidea izanen duela.

# *Xabier BALLARENA:* «Xorroxinek bere proiektua aurkeztuko du Lesakako frekuentzia eskuratzeko»

Laster zortzi irrati-frekuentzi berrirendako lizentziak banatuko ditu Nafarroako Gobernuak. Frekuentzia horietako bat Lesakan kokatuko denez, Xorroxinek bere eskaera aurkeztea pentsatua du. Santiago Cervera Gobernuko bozeramaileak garbi erran du deialdian ez da erreserbarik aurrikusten irrati euskaldunentzat.



Xabier Ballarena, Xorroxineko kidea

**Zein da Xorroxinen egoera legala gaur egun?**

Momentuz Baztango Udalak duen lizentzia munizipalaz baliatzen gara, eta horrek limitazio dexente ditu. Lizentziari kasu eginez gero legalki Elizondo eta bere ingurura emititu beharko genuke, 25 Wateko potentziarekin eta antena gehienez ere 200 metroko alturan jarrita. Kontua da gaur egun bi antena ditugula, bat Legaten eta bertzea Larunen, eta antena hauek legeak dioena baino aisa altura haundiagoan daudela, eta seinalea ere zona osora zabaltzen dugula. Hortaz, egoera alegalean gaude.

**Halere Baztango Udalarekin baduzue akordioren bat egina?**

Bai, egin genuen bainan Nafarroako Gobernuak ez zuen onartu. Lizentzia hori munizipala izatean, legeak ez du onartzen frekuentzia kultur talde batek gestionatzea. Beraz, udalak gestionatu beharko luke zuzen-zuzenean.

**Hortaz, bide hori agortua dago?**

Bai. Guk beti erran dugu ezin dugula lizentzia horrekin funtzionatu, eskualde osoa hartzen baitugu, eta horregatik eskatu behar dugu Lesakan ateri behar duten lizentzia.

**Lesakako lizentziak moldatuko lizueke eskualde osora emititu ahal izatea?**

Ez. Legea egina dago hiri haundietan pentsatuz, eta ez herri ttiki eta toki menditsuetan pentsatuz. Lesakako lizentziak Lesakako herrian emititzeko balioko du bainan ez Lesakatik kanpo emititzeko. Hor dago koxka.

**Dena den Lesakako lizentzia noiz eta nola ateriko dute?**

Momentuz Nafarroako Gobernuak erran du nolako erizpideak erabiliko dituen lizentziak banatzerakoan (Lesakan erdarazko irratia izaten ahal da lasai ederrean), eta horrekin batera garbi erran du irrati komertzial batendako lizentzia dela. Kultur eta kirol taldeendako lizentziak geroago ateriko omen dituzte, Espainiako Gobernuak hala erabakitzen duenean.

Dena den, orain, egun batetik bertzera Nafarroako Aldizkari Ofizialean ateriko dute deialdia eta egun batzutako tartea jarriko dute proiektuak aurkezteko. Gero, aurkeztu diren proiektu guzien artean lizentzia zeini eman Nafarroako Gobernuak erabakiko du.

Gure helburua eskualde osoan emititzeko balioko duen lizentzia lortzea bada ere, Xorroxinek bere proiektua aurkeztuko du Lesakako frekuentzia eskuratzeko.

*«Lesakako lizentziak Lesakako herrian emititzeko balioko du bainan ez Lesakatik kanpo emititzeko»*

# Berriak

## Aitzinera goazi.......................................Gibelera goazi




Nafarroako Rural Kutxak bezeroentzako kartilak elebiez egin ditu. Zalantzarik gabe euskararentzat aurrerapausua da hau. Halere, oraindik lan haundia egin beharra dago: langileek kartila horietako kontzeptuak euskaraz bete, talonarioak euskaraz egin, gainerako inprimaki guziak euskaratu...




Gure eskualdeko bi autobus enpresek (Baztanesa eta Bidasotarra) ematen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa (ordutegiak, ibilbideak...) gaztelania hutsez banatu dituzte aurten ere. Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak ordutegia euskarara itzulia eman dio Bidasotarrari. Orain hori erabiltzea falta da.

## Liburuak.......




**«Abere madarikatuak»**
**Antxon GOMEZ**
**Susa, 155 orr.**

Piztiez eta animaliez inguraturik bizi izan gara mendetan. Hainbat miretsi eta gurtu ditugu Euskal Herrian, baina errespetatuak izatetik madarikatuak eta persekutatuak izatera pasa dira batzuk, eta beste zenbait akabatu eta desagertarazi ditugu jadanik. Antxon Gomez basozainak bestiario liluragarria eskaini digu bere lehen liburu honetan. Naturaltasun apalez izkribatu dizkigu abere madarikatuen joanetorriak, ipuinak historiaz eta mitologiaz zipriztindurik, kondairak eta sinesmenak txertatuz zoologiari. Animaliago bilakatu gaitu, agian.




**«Haur korapiloak»**
**Juan Kruz IGERABIDE**
**Pamiela, 70 orr.**

Belaunean min hartzen duzunean, korapiloa bezalakoa jartzen zaitu, eta ez dizu lasterka egiten uzten. Horren antzeko korapiloak sortzen dira batzuetan sabelean, edo bihotzean, edo eztarrian, edo buruan.

## Herriko Plaza..........................................................

TIPI-TTAPAren ale honekin batera, zure izen-abizenak euskaratzeko egin behar duzuna azaltzen duen eskuorria doaie. Aunitzetan izen-abizen euskaldunak ditugunok hauek euskaraz idaztera ohituak gaude (*Idoia, Joseba, Mikel, Irazoki, Etxeberria, Telletxea...*). Halere, dokumentu ofizialetan, karnetean... izen-abizen hauek erdarazko grafiarekin agertzen dira (*Idoya, Yoseba, Miquel, Irazoqui, Echeverría, Tellechea...*). Halaber, betidanik *Pello, Miren, Jon, Josune...* bezala ezagutu ditugunak, dokumentu ofizialetan *Pedro, María, Juan, Maria Jesus...* izaten dira.




Gehienok jakinen duzuen bezala, gaizki idatzia dauden izen eta abizen euskaldun hauek behin betirako euskaraz jartzeko aukera badago. Horretarako, eskuorrian ikusiko duzu zein diren eman beharreko pausuak. Euskara Zerbitzuan honen gaineko informazio zehatza emanen dizugu (nora joan, zer egin...). Utzi zabarkeriak alde batera eta ekin lanari. Jakin ezazu behin eginda, zuk eta zure ondorengoek betiko euskaraz izanen dituzuela izen-abizenak leku guzietan. Gainera, bereziki gurasoak animatu nahi ditugu. Izan ere, gurasoek zuen abizenak euskarazko grafiarekin jarriz gero, 18 urtetik beheitiko seme-alabei ere automatikoki abizenak euskaraz jarriko batizkizuete. Deitu Bortzirietako Euskara Zerbitzura: 63 41 25.

# *Berako ordenantzak euskaraz zeuden XIX. mende hasieran*

Carlos Idoate eta J. Joaquín Villanueva ikertzaileek ondoan irakurriko duzuen ordenantza aurkitu zuten Nafarroako Agiritegi Nagusian. Dokumentu honetan datarik agertzen ez bada ere, bi ikertzaile hauen ustez XIX. mende hasierakoa da. Gainera, urtero, Berako Udalaren aginduz, bertako erretoreak gisa honetako argitalpena banatzen omen zien herritarrei.

Ikusiko duzuenez, ordenantza honetan gai ezberdinak nahasian agertzen dira (arbolak, bideen garbiketa, karriketan ibiltzeko ordutegiak, inauterietan mozorrotzeko debekua...).

Ordenantza hau balio haundikoa dela erraten ahal dugu, bereziki, kontuan hartuz XIX. mendean (euskara etxeko hizkuntza baizik ez zenean, eskoletan erakusten ez zenean, batu gabe zegoenean, hiztegi eta bertzelako materialik ez zenean...) euskaraz idatzitako dokumentu ofizialak aski gutxi direla. Gaur egun, berriz, gisa honetako dokumentuak euskaraz egiteko baliabide eta bitarteko guziak izanda (euskara batua, hiztegiak, langile kapazitatuak, euskara hizkuntza ofiziala...) ia denak erdara hutsez egiten dira.

Beraz, badugu zer ikasi gure aitzinekoengandik.

*1.- Alcate ta erregidore yaunac aguintcen dute erriyaren dermiotan ebaquiyac dauden arbola guciyeq, eramen detzatala bacochac ychetara edo obrac eguin biar ttuzten lecura amaborc egunan eben barrenian, ta bertzela erregimentubac artuco dubela biarden providenciya.*

*2.- Eztezala ñiorc ebaqui arbolatan adarriq, bi ducaten penan aldiya bacochaco, eta unetaz gañara yzanen dire catigubac erregimentubaren disposiciora.*

*3.- Landetaco, eta bertze zarracubac compon dittezela usatzen den bazala, zortzi egunen barrenian bertzela erregimentubac ongui erazico ttubela yabien costura.*

*4.- Landetaco yabiac quen detzatela bidian ybiltzeco traba eguitten duten otiac, ta larrac, zortzi egunen barrenian, bertzela erregimentubac eraguiñen dubela oguin costura.*

*5.- Niorc eztezala ogui biriq erosi errico ychian descargatu biño lenego, bi dugaten penan aldiya bacochaco.*

*Nior arrapatzen baldin bada providenciyara daramala ogui biya, edo Erria yzanen dela castigatuba, leguiak disponitzen duten bazala.*

*Alcate yaunac aguintzendu, erronda eguin ezquero erretira dittezela guciyec, eben ychetera, beretan, ta caricatan guelditu gabe, yrrinciariq eguin gabe, ta cantatu gabe, bertzela castigatubac yzanen direla rigoriarequin.*

*Eztadiyela ñior pasatu Veraco auzotiq Alzatara, ta ez Alzatatiq Verara erronda eguin ezquero, bada arrapatzen badire eben auzotiq campuan yzanen direla castigatubac rigore guciyarequin, ta valiyoco escusariq batere.*

*Eztadiyela ñior ybilli arpeguiyac estaliriq ñiauteriyatan, ta ez bertze demboraz, bertzela yzanen direla castigatubac.*

*Elizaco funciuak errattian eztadiyela ñior ari yocuan, ta ez pillotan, bi pezetaren penan, ta egun bateco garcela.*

*Tabernariyac eztezatela eman ardoriq ta ez yatera ofreciuak erratteco demboran.*

**AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU**

*Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu*

✆ 634125

# MALERREKA

## Doneztebeko etxebizitza zainduen ekipamendua gizartearendako interesgarritzat jo du Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak gizartearendako interesgarritzat jo du Malerrekako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Donezteben dituen adintuendako etxebizitza zainduen ekipamendurako proiektua. Izendapen hau egitea Mankomunidadeko lehendakaria den Miguel San Migelek eskatua zuen, honela Elkarteen Zergari dagozkion ondorioetarako. Espedientean, Nafarroako Rural Kutxak zentru honen ekipamendurako bi milioi eman duela ziurtatzen da.

## Txiste afaria ospatuko da abenduaren 12an Doneztebeko Jubilatuen Etxean

Langarra Euskara Taldeak Malerrekako euskaltzale guztientzat txiste afaria antolatu du abenduaren 12rako (ortzirala). Afaria Doneztebeko Jubilatuen Etxean burutuko da, gaueko 9etan hasita eta bertan, Langarrak datorren urterako prestatu dituen hainbat ikastaroren berri emanenen da: antzerkigintza, bertsolaritza, sendabelarra, masajea eta txalaparta, hain zuzen ere.

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 451746 telefonora.

## 1998rako tasak eta zergak zehaztu dira Elgorriagan

Elgorriagako udalak, datorren urterako tasak, zergak eta kontribuzioak zehaztu ditu.

Etxebizitza bakoitzeko urhornidura, urteko 3.600 pezetakoa izanen da, kontadoreak martxan jarri arte, bederen.

Gainerako tasak aurten bezala mantenduko dira. 1998ko kontribuzioak neurri hauen arabera ordaindu beharko dira: Hiri kontribuzioa %0,21; landa lurrena %0,64; instalazio eta obren gaineko zerga %2,5

## Itoizko Koordinadoraren bilera igandean Iturenen

Itoiz Koordinadorak bilera eginen du igande honetan, abenduak 7, arratsaldeko 5etatik aitzinera Iturengo Herriko Etxean. Oroitarazi behar da abenduaren 13an Iruñean manifestazio bat antolatu dela.




PENTSIO PLANAK

Etorkizuneko proiektuak garantiarekin

Orain Rural Kutxak bere Pentsio Plana eta zuri aholkatzeko prestatua dagoen profesional taldea aurkezten dizu.

Garantia bikoitza duen plana: Rural Kutxa Bezalako finantzial erakunde batek eta bere RGA Aseguro konpainiak ematen dizutena.

Abantailaz beterik dagoen Plana

- Garantia osoa
- Abantaila fiskalak
- Malgutasuna
- Errentagarritasuna

Eta orain, 97/12/31 baino lehen zure Pentsio Plana izenpetzeagatik, propio diseinatua den bidai-maleta erabilgarria **oparituko dizugu.**



NAFARROAKO RURAL KUTXA

## GOIZUETA

# Ia hamaika milioi pezeta eskoletako berokuntza sistema berritzeko

### Su-hiltzaileek ere dirulaguntza jaso dute Nafarroako Gobernutik

ESTEBAN AROZENA

Gaztelu iturgintza enpresak herriko eskoletan eginen duen lana ia hamaika milioi pezeta kostako da, 10.732.225 pezeta zehatzago esanda. Dirutza honekin, aspaldian hondatua dagoen kalefakzio edo berokuntza sistema erabat berrituko da, hau da, galdara edo depositutik hasi eta altzairuzko hodieri edo tuberia guztia aldatu arte.

Azken egunotan arazoren bat ez baldin bada sortu, dagoeneko hasiak izanen dira obra hauek. Bukatu berriz, hemendik bi hilabete barru eginen dira Gazteluk emandako hitza betez gero. Finantziazioari buruz esan, aipatutako diru kopuruaren %70 Nafarroako Gobernuak ordainduko duela eta gainerakoa, jakina, udalak.



Aurtengo negua iazkoa baino epelagoa izanen da herriko eskolako haurrentzat

Iruñetik datozen diruen berri ematen hasiz gero, orain dela hilabete batzuk herrian sortu zen su-hiltzaile boluntarioentzat eman dituztenak ere aipatzekoak dira. Bi milioi terditik gora jaso ditu udalak Barne Saileko zuzendaritzatik, ia milioi bat pezeta boluntarioen ekipamendurako, arropak gehien bat, eta 600.000 C-1 motako gida-karnetak ateratzeko. Laguntza honi esker lau lagun auto-eskolan dabiltza aipatutako gidatzeko baimen hori eskuratu ahal izateko. Su-hiltzaileen kamioia eta Land-Roveren asegurua ere subentzionatu du Gobernuak 220.000 pezetarekin.

### Umore Ona elkarteko atalen Eguna

Ongi merezitako omenaldia eskaini zien bere atal edo sekzioei Umore Ona elkarteak azaroaren 22an.

Berrogei dantzari, hogeitabost pilotari eta beste hainbat futbolari eta bazkide ugari bildu ziren elkartean afaltzera, arratsaldean bakoitzak bere emanaldia eskainitakoan. Egun eta gau borobila izan zuten Umore Onako sekzioetako kideek.

## ARESO

# Industrialdeko lanek segida izango dute

### Errekatxo baten kanalizazioa behar den bezala egin ondoren

JUANA Mª SAIZAR

Uztailean industrialdeko lanak gelditu arazi zizkioten *Confederación Hidrográfica del Norte* enpresari, errekatxo baten kanalizazioa gaizki egina zegoela eta. Autobiaren obrak ondorioz, lur azpitik tubo batekin kanalizatu baitzuten, orain dela urte batzuk. Nafarroako Gobernua eta Cubiertas enpresaren adostasunarekin egina zen.

Orain kanalizazioa lurraren gainean egin behar da eta Nafarroako Gobernuak, Aresoko udala lan hauen kostuaz kargu egitea nahi zuen. Lau hilabete pasa ondoren, hitzegitera eseri dira eta akordio batera ailegatu dira Nafarroako Gobernua eta Udala. Udalak gastuen %20a ordainduko du, baina kostua diru kopuru batetik behera baldin bada. Akordioa sinatzen den bezala, lanak lehenbailehen hasiko dira.



Industrialdeko lanak geldirik zeuden uztailaz geroztik

Artxiboa

❖ **Udazkeneko Jirabira** kanpainaren barruan *Phantasy Quartet* musika taldea etorriko da elizara abenduaren 7an, goizeko 11,45etan, saio bat eskaintzera.

## LEITZA

# Etxebizitzaren arazoa moldatzeko kooperatiba bat sortu nahi da

### Ostiraletan Udaletxea-Aurrera inguruan egiten dituzte bilerak

JOSEBA AZPIROZ

Herriko etxebizitzaren egoera larria ikusita, zenbait gaztek kooperatiba edo zerbait egiteko asmoa azaldu dute, etxe bizitzak modu onean ateratzeko. Interesatua baldin bazaude azaldu ostiraletan Udaletxea-Aurrera inguruan egiten diren bileratara. Eskaera honen aurrean, Hirigintza Plan berriak hiri lur eremu batzuk errekalifikatu beharko lituzke. Etxerik behar al duzu? Ba, orain duzu aukera.



Hirigintza Plan berriak, etxebizitza eskaeraren aurrean hiri lur eremu batzuk errekalifikatu beharko lituzke Argazkia: Joseba

### Herri-lurren hitzarmen transakzionala

Udalak azken epea ireki du ondasun komunalengan (iraztorleku, lizardi eta gaztainadiengan) eskubideak eskriturratuta izanik hitzarmen transakzionala egiteko. Epea abenduaren 12an bukatuko da eta egun horretatik aurrera ez da hitzarmen berririk bideratuko. Hitzarmenik egiten ez dutenentzat berriz, Mendi Batzordetik jakinarazi digute behar diren neurriak hartuko dituztela, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, eskriturratutako eskubideak komunalarentzat berreskuratzeko.

### Pila-ontziak

Udalak pilak jasotzeko ontziak jarri ditu zenbait dendatan eta Udaletxean. Jakinik oso kutsakorrak direla, saia gaitezen ontzi horietara botatzen. Ez da zaila, berriak erostera goazenean zaharrak eraman.

### Zinea

Asteburu honetan *«Speed II»* pelikula izanen dugu ikusgai zineman. Datorren asteburuan berriz, *«Tocando al viento»*. Fikzioa, fantasoa, ordu pare batez. Eta Leitzara arratsaldea igarotzera etortzeko aitzaki polita.

### Leitzako gazte guztiei:

Dakizuen bezala, Irauli Gazte Asanblada sortua da jadanik. Zenbait ekintza antolatu badira ere, orain arte nahiko motel ibili gara eta hemendik aurrera gogor ekiteko asmoarekin gatoz. Helburu asko baditugu ere, orain arte garrantzizkoena ikusten duguna, lokal bat edukitzea da. Horretarako, Udaletxeko zinegotzi batzuekin hitz egin dugu eta gauza aurrera doanez, Batzarrean sartuko dugu. Baina horretarako, aurretik, Leitzako gazte guztiok biltzea lortu nagi dugu, denona izanen den eta guztioi interesatzen zaigun gaia baita. Zuen iritziak eta ideiak entzun nahi ditugu, eztabaidatu, zer interesatzen zaigun jakin eta horrela, denen partehartzea lortu. Guk behar duguna ez digute eskura emanen eta zerbait lortu nahi badugu, gazteok mugitu behar dugu hori lortzeko. Besterik gabe asanblada ireki hori noiz eginen den jakitera emanen dizuegu laster eta beraz, adi egon!. Denon partehartzea beharrezkoa da!

LEITZAKO IRAULI
GAZTE ASANBLADA

### flash



- **Iñaki Agirre 'Gaztelu'** herriko erremontelaria profesional bezala arituko da hemendik aurrera. Iñakik 22 urte bete zituen maiatzaren 28an eta atzeko koadroetan aritzen da.
- **Ehiza elkarteak** 50.942 pezetako dirulaguntza jaso du Nafarroako Gobernuko Ehiza eta Arrantza Departamendutik, landak zaintzeko sarea jarri dezaten.
- **Herritik autobiarako** errepidea hobetzeko proiektua 3.596.000 pezetaren truke idatziko du Santiago Sainz de los Terreros arkitektuak.
- **Herri kirolaren** inguruko erakusketa antolatu du Plazaola Partzuergo Turistikoak. Abenduaren 12tik 30era Udaletxeko batzar aretoan egonen da ikusgai.


muñeca de Trapo
IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55


Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

## BAZTAN

# Belate eta Almandozko tunelak azaroaren 28an zabaldu zituzten

Kontrako iritziak izanagatik, Espainiako Erregea bertan izan zen

JOSEBA IGARABIDE

Iruñerako joan-etorria Belate eta Almandozko tunelen barna egiteko aukera dago azaroaren 28etik aitzinera. Egun horretan zabaldu ziren ofizialki bi tunelak eta ekitaldian Nafarroako Gobernuko eta eskualdeko Herriko Etxeetako zenbait ordezkarirekin batera, Espainiako Erregea izan zen. Hau dela eta, HBk eta zenbait erakundek beraien protesta azaldu zuten eta eskualdeko sei alkatek ekitaldian parte hartzeari uko egin zioten. Goizean, Belatetik Bertizko Parkera joan ziren inaugurazioan parte hartu zuten agintariak. Arratsaldez, Iruñerako harat-honata egiteko moduan zegoen 13 kilometroko errepide berria.

Lanen kostua, guzira 11.454 milioi pezetakoa izan da, uste baino aunitzez gehiago. Dirutza horren hirutik bi Almandoz eta Belateko tunelak egiten erabili da eta gainerakoa, bertze zatietan eta gastuetan.



### Karrikatxar karrika auzolanean moldatu dute Elbeten

Ongi egindako lanak saria merezi du. Hori pentsatu zuten Elbeteko Karrikatxar karrika auzolanean moldatzen aritu direnak eta *Bizkar-besta* gisara, otordu ederra izan zuten

Argazkia: Mª Cruz Burgetek utzia

### 37ko kintoen bazkaria larunbatean

1937ko kintoen bazkaria izanen da larunbat honetan, abenduak 6, Almandozko Beola jatetxean. Aitzinetik, 12etan meza izanen dute hildako kintoen oroimenez. Deialdia, Baztan-Bidasoa, Leitzaldea eta Ultzamako kinto guziei idekia dago.

### Abenduko futbol-7 txapelketa jokatuko da larunbatean Lekarozen

Larunbat honetan, abenduak 6, Baztango Kirol Baztaordeak antolatutako futbol-7 txapelketa jokatuko da Lekarozko zelaietan, goizeko 10etan hasita.

Parte hartzaileak bi mailatan banatuko dira, adinaren arabera. Haurrak (1984-85ean sortutakoak) eta alebinak (86-87).

Konpetizio eta sailkapen sistema, izena emanen duten talde kopuruaren arabera moldatuko bada ere, partiduek ordu erdi iraunen dute, 15 minutuko bi zatirekin eta 5 minutuko atsedenaldiarekin.

### Luberriak ateratzeko eta hobetzeko lanak

Herri lurretan luberriak ateratzeko eta hobetzeko lanak Luciano Iriartek eginen ditu 16.995.000 pezetaren truke, bera izan baitzen hiru eskaintzetatik onena. Zehazki, Montxea, Auzkue, Osabat, Basarte, Lendari, Martintonea, Etxeberea, Otxaski, Mandatxen, Etxoto, Juanikot, Sustxulu, Putzualde eta Eder alderdietako herri lurretan eginen dira lanak.

### Pertsonaia

*«Jende poliki ibili da uda honetan gure baserrian»*

Joan den asteazkenean, ingurugiroari buruzko informazioa eskaintzen duten Espainiako kazetarien elkarteak (APIA) emandako Via Apia saria eskuratu zuen Madrilen Joxepi Mihura, Beartzungo Urruska baserriko andreak. Joxepik baserriko bi gela turistei eskaintzen die azken zazpi urtetan, *«36 baserri hasi ginen horretan 1991. urtean»*. Zenbait urtez landa-turismo etxeen elkarteko lehendakaria ere izan da. Kazetariek *«beraien lana betetzeko eskaini diegun erreztasunak eskertuz saritu gaituzte, inoiz lortu dugun lehenbiziko saria»* dio. Aurtengo udan orokorrean turista gutixeago etorri dela sumatu bada ere, Urruskan *«jendea poliki ibili da»* Joxepiren ustez. Orain ere agertzen zaie bakarren batzuk asteburuetan: *«Badakizu, urte osoan ateak zabalik ditugu eta xirri-xirri etortzen dira, bai»*.



Joxepi MIHURA

JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

GAS KAITZ
fontanería
calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

EUROPEAN VISION GROUP
BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGIA:
Astearte eta ortziral goizetan, 10etatik 1,30etara eta asteazken arratsaldetan, 5etatik 7,30etara
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

## BAZTAN

# Gartzain Kirol Taldeak kide berriak bilatu nahi ditu

Ortziral honetan bilera izanen dute Arizkunenea Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Gaur egun antolatzen dituen ekitaldi kopurua haundituetahobetzeko intentzioarekin Gartzain Kirol Taldeak bilera bat burutuko du ortziral honetan, abenduak 5, arratseko 8etatik aitzinera, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

Aipatutako helburu hori bete ahal izateko, bazkide berrien beharra somatzen du kirol taldeak eta, horretarako *«kirol ekitaldien praktikan eta antolaketan gurekin lan egiteko gogoa duen jendea bilatzen dugu»* diote.

Talde honek antolatu du Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa eta aurtengo probak *«arrakastatsuak»* izan direla adierazi dute. *«Zonaldean kirola egiten duen jende kopurua eta beraien kalitatea sorpresa bat izan da guretzat. Arrakasta hau posible egin duten guziei eskerrak eman nahi dizkiegu lerro hauen bitartez»*. Informazio gehiago 580813 telefonoan.



### Ion Arozarena, arizkundarren semea, Argentinako diktadurapean desagertua

Hogei urte desagertuta daramazki Ion Arozarena Larregik, argazkiaren eskuinaldean ageri denak. Argentinan bizi zen orduan eta militarrek etxetik eraman zutenez geroztik senideek ez dute bere berririk izan. Gurasoak baztandarrak zituen, Arizkungo Ramon Arozarena eta Mª Angeles Larregi, eta semea berriz bizirik ikusteko itxaropena galdua daukate.

### Kantu zaharren afaria antolatu du Doikek abenduaren 13an Amaiurko elkartean

Doike Euskara Taldeak *«Kantu zaharren afaria»* antolatu du abenduaren 13an, larunbata, Amaiurko elkartean. Akordionista ere bertan izanen dute, kantuak laguntzeko. Izen ematean 1.000 pta utzi beharko da seinale gisara, Intza edo Txokoto ostatuan (Elizondo), Dolatxean (Arizkun), Olari (Irurita) edo Mendialdean (Amaiur).

### Zeramika erakusketa

Ortziral honetan, abenduak 5, itxiko da Pilar Compains artistak Arizkunenea Kultur Etxean burutzen ari den zeramika erakusketa. Ordutegia: arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara.

### flash

**Amaiurko eskolako** jangelako teilatua aldatzeko 1.661.452 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak. Aurrekontu osoa 2.373.503 pezetakoa dela kontuan hartuz, lanaren %70a ordainduko dute Iruñetik. Balleko Etxeak proiektua eta adjudikazioa lehenbailehen egitea erabaki du.

**Lekarozko Institutuan** Balleko Etxeko ordezkaria Santiago Ustarroz izanen da. Ordezkoa, berriz, Miguel Angel Adin.

**Erratzuko** Mamute, Inda, Dominenea eta Argin baserritara doaien bide bazterra txukuntzeko zahorra botako da.

**Baztan errekako** defentsa lanak –joan den urteko uztailaren 27an izandako uholdeen ondorioz– Kastejongo Perez del Rio enpresak eginen ditu, 6.519.159 pezetaren truke. Udalak, lanak bertze enpresa bati azpikontratatzea debekatu dio.

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 580313
ELIZONDO

OSKORRI liburudenda
• Liburuak-prentsa-mapak-gidak
• Argazkilaritza materiala
• Papertegia-inprenta
✆ 592245 • Petrinea • ORONOZ-MUGAIRI

# ZUGARRAMURDI-URDAZUBI



Zugarramurdi, Sara eta Urdazubiko lezeak lotzen dituen bideari buruzko informazioa zabaldu da Kongresoan

## Xaretako bideak Europako Kongresuan izan dira

### Logroñon burutu da azaroaren 20tik 22ra

TTIPI-TTAPA

Zugarramurdi, Urdazubi eta Sarako lezeak lotzen dituen bideari buruzko txosten batek parte hartu du Logroñon burututako Kultur bide eta tema-ibilbideei buruzko Europako Kongresuan. Kongresu hau azaroaren 20tik 22ra burutu zen eta Europa osoko bideak ezagutzeko aukerarekin batera, zenbait unibertsitatetako iritziak plazatu ziren bertan.

Urdazubi eta Zugarramurdiko udalek, 1993an Europako eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz moldatutako zazpi kilometroko bidearen berri eman zuten bertan. Eraberean, Zugarramurdi, Urdazubi eta Sarako lezeen berri eman zuten Errioxako hiriburuan.

### Estefa gan zaigula eta

Azaroaren 18ko goizean zarraztada batekin ernatu ginen: Estefa gan zaitzaigula. Lehenbiziko momentuan harridura eta ezin-sinetsia sentitu ginuen; ondotik sekulako hutsunea eta iluntasunak inguratu gintuen; ezin ulertu hunek nigar eta malko franko botarazi gintuen.

Orain, egun batzuen buruan konturatzen gara zer izan zen zu gure izatea (beti bezala, zerbaite falta dugunean nabaritzen baita bere beharra eta balioa): bilera guztietako ahotsa; edozein lanerako laguntza; zalantzetan eskatzen ginuen aholkua; bestetan behar zen alaitasuna... eta pentsatzen gelditzen gara:

• «Sorgiñak» antzeslaneko «Mari» pertsonaiak faltan sumatuko dituela zure ahotsa eta eskuak, haiek baitziren bizitza ematen ziotenak.

• «Xutegian» eginak utzi dituzun esku-lanak finitzen direnean, non bilatuko zaitugu?

• Akelarreko gaupasan jaunzten zinuen soineko xuri-berdea, orain nork jantziko du?

• Zure etxeko goxotasunean pasatzen genituen neguko igande-arratsaldeak gogoratuz, oraingoak ilun eta tristeak iduritzen zaizkigu.

• Hainbeste ilusioakin martxan jarri zenituen proiektuak, aintzina segitzen ahalko dute zure faltan?

Zurekin ikasi baitugu gauza eder bat: bizia bizitzeko gogoa. Gogoratzen zaitugu eguneroko egunak hartzen eta zuten guztia emanarazten: Gaten-etortzen, egiten, mugitzen, ikusten-ikasten, gauza berriak sortzen, gauza zaharrak indartzen... eta beti ilusionaturik, irri-parre batekin eta ingurukoak animatzen.

Ohartzen zara Estefa? gure mina eta pena ez da zuregatik, guregatik baizik, gure artean utzi duzun hutsunagatik. Eta orain gelditzen zaigun kontsolamendu bakarra, zuri oihu hau bidaltzea da: Milesker gure artean pasatu dituzun 30 urteengatik.

Bitartean, zu urrun gan zara, hainbertze maite zenituen margarita-lorez apainduta, eskatua utzia zinuen bezalaxe. Izan zoriontsu.

ZUGARRAMURDITIK


TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

■ **Zurich Aseguruak**
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ **Lan aholkularitza**
• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ **Aholkularitza fiskala**
• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ **Inmobiliaria**
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ **Gestoria**
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ✆ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua

EGOKI

ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
23.000 irakurle

MENDIALDE

Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • ✆ 45 30 60

## SARA

# Aurtengo ikastaro ezberdinak hasiak dira, AEK eta Xaretaren eskutik

### Euskara, gaztelera eta informatika ikasteko aukera

MIXEL ETA JACQUELINE

Ikastaro ezberdinak hasiak dira herrian.

**Gau eskolak**

AEKk antolatutako aurtengo ikastaroak urriaren hasieraz geroztik zabalik dira. Orotara 23 ikasle biltzen dira, astean lau orduz, eta horiek lau mailetan banatuak dira:

• Lehen urratsa (hastapenekoekin), 8 ikasle.

• Hobekuntza (bi mailetan), 10 ikasle.

• Alfabetatze maila, 5 ikasle.

Erakaskuntzaz arduratzen diren hiru erakasleak Kattin eta Pantxika Bergara eta Frederic Berrouet.

**Xareta formatzaile**

Xaretak ere ikastaldiak eskaintzen ditu arlo ezberdinetan:

• **Hizkuntzak:** Gazteleran 40 ikasle, bi mailetan banatuak (lehen urratsekoak bederatzi oren eta hobekuntzakoak sei oren).

Euskaran 15 ikasle lehen urratsean (sei oren).

• **Informatika:** Urdazubin eta Zugarramurdin hamabi ikasle jada lanean hasiak dira. Saran, aldiz, ez dira oraindik hasiak, bainan 45 pertsonek izenak emanak dituzte.

**Santa Katalina**

Santa Katalina ohoratua izan da azaroaren 23an Olhaldeko kaperan eta jende ainitz bildu da. Karia hortarat eta ohidurari jarraikiz, Ihalarreko Baratxartea ostatuan tripotx jatea egin da, larunbat eta igandez. Nahiko errekistatsua izan da aurtengo hitz-ordua.



### 'Eztanda' taldearen kontzertua larunbat honetan Herriko Etxeko edantegian

Larunbat honetan, abenduak 6, *«Eztanda»* trikitixa taldeak kontzertua eskainiko du Herriko Etxeko edantegian, arratseko 10,30etan. Kontzertu hau «Herriak eta Hiriak» kanpainaren barnean eginen da. *«Eztanda»* taldean, argazkian ageri den Sarako Kristian Amorena bateria-jolea aritzen da. Datorren ortziralean, abenduaren 12an berriz, Xabi Larralde ekonomia ikasleak «Langileen kooperatiba mugimendua» izeneko mintzaldia eskainiko du, arratseko 9etatik aitzinera Omordian. Argazkia: Asier Gogorza





ETXANDI
TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



Maderas
GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 58 06 45

URDAZUBIko
UDALA

Herriko Hirigintza Planaren behin-behineko onarpena

1997ko azaroaren 7an, Udalak ondoko akordioa onartu zuen:

1.- Urdazubiko Hirigintza Plana onartzea, behin-behinekoz.
2.- Herriko eremu guzian obra-baimenak ematetik utziko da momentuz.
3.- Akordioa hau jendeak ikusteko jarriko da hilabete batez, abenduaren 27a artio.

Urdazubin, 1997ko azaroaren 27an
Alkatea: Francisco Iribarren

## EZKONTZAK

**Jose Mari Arruti** eta **Mertxe Loiarte Perurena**, Andoain eta Goizuetakoa, azaroaren 15ean.
**Antonio Gonzalez Santos** eta **Irene Bayones Amondarain**, Elbete eta Iruñekoa, azaroaren 14an.
**Asuncion Bergara Lazkano** eta **Alain Dagerre**, Arantza eta Arbonakoa, azaroaren 22an.

## JAIOTZAK

**Sara Garcia Rey**, Berakoa, azaroaren 9an.
**Asier Sanjurjo Gil**, Lesakakoa, azaroaren 9an.
**Rocio Gonzalez Bayones**, Elbetekoa, azaroaren 5ean.
**Elvira Fuentes Calvo**, Sunbillakoa, azaroaren 15ean.
**Patxi Olasso**, Sarakoa, azilaren 15ean.


**ZORIONAK!**
**Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu**



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA 125


## HERIOTZAK

**Estefa Erro Mendiburu**, Zugarramurdikoa, azaroaren 18an, 30 urte.
**Juanjo Urrutia Juanenea**, Saldiaskoa, azaroaren 23an, 33 urte.
**Isabel Iantzi Irigoien**, Lesakakoa, azaroaren 24an, 75 urte.
**Juan Cruz Zubieta Ibarrola**, Arizkungoa, azaroaren 11n, 82 urte.
**Rosario del Pilar Nuñez Villareal**, Elizondon, azaroaren 18an, 84 urte.
**Gabriel Uriagereka Garaizar**, Berakoa, azaroaren 15ean, 74 urte.
**Digna Navarro Imaz**, Berakoa, azaroaren 17an, 71 urte.
**Mirentxu Calvo Delpech**, Sarakoa, azilaren 13an, 59 urte.
**Maurice Nart**, Sarakoa, azilaren 16an, 80 urte.



### Jon APEZETXEA TAPIA
**1. urteurrena (XII-3)**

Gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
bainan bizitzen garen artean
ez zaitugu ahaztuko

Zure oroimenean eginen den meza
abenduaren 7an, goizeko 11,30etan
izanen da, Lesakako San Martin elizan.



### Jon APEZETXEA TAPIA
**1. urteurrena (XII-3)**

Jon,
ez haiz gure artean
gure oroitzean bai

DYA-ko hire lagunak



### Estefa ERRO MENDIBURU
**30 urteko zuamurdiarra**

«Estefa, hartzazu gure amodioaren
maitasun guztia,
indar horrekin segi zure bidea eta
izan zoriontsu.
Eta etzazula nihoiz ahantzi:
maite zaitugula»

Zuamurdiko lagunak
Zugarramurdi, 1997-11-18

DATUAK.........

❖ *Lau dira normalki "EZTANDA" taldeko partaideak: Oskar eta Aitziber Estanga anaiarreba donostiarrak trikitixa eta panderoarekin, Beñat Zozaia (Zugarramurdin bizi den Urruñarra) baxuarekin eta Kristian baterian.*

❖ *Larunbat honetan Saran joko dute "Herriak eta Hiriak" Hilabete Kulturalaren barnean, eta hilaren 11n, berriz, telebistan izanen dira, ETBko "Aire aire!" saioan.*

❖ *Okzitania eta Italiatik datozen eta Iparraldean indartzen ari diren musika eta dantza estilo batzuetan sakontzeko asmoa omen dute.*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
*ASIER G.*

☞ **Kristian AMORENA** *Saratarra, EZTANDA taldeko kidea*

# "Trikitixa musika mota guzietan erabiltzen ahal da gaur egun"



**Lehenago ere Maltzetan eta zenbait txarangekin jo izan du Kristianek.**

**NOIZ SORTUA DA "EZTANDA" TALDEA?**
Oskar eta Aitziberrek ETBko Trikitixa Txapelketa irabazi zuten eta Gozategiko managerrak erranta hasi ginen, joan den martxoan. Estanga izan arren euren abizena, jende guziak erraten diote "Eztanda" eta hortik hartu genuen taldearen izena.

**LEHENAGOTIK MUSIKA MUNDUAN ESPERIENTZIA BADUZUE ORDUAN?**
Bai, Oskar eta Aitziber Joseba Tapiaren lehengusuak dira, eta familia guzia musikaria dute gainera. Oraindik ere maiz ibiltzen dira biak elgarrekin ostatuetan, bestetan, nonahi, "caja de ritmos" batekin. Beñat Zozaiak, berriz, Sustraiak taldean baxua jotzen zuen lehen, eta orain Kukumikun, eta ni ere hemengo taldeetan aritu izan naiz, Maltzetan...

**NON JO DUZUE ORAIN ARTIO?**
Adunan, Leitzan, Makean, Biriatun eta hainbat tokitan izan gara. Zugarramurdiko plazan eta Donostin ere jo dugu, Egiako Porrontxoetan, eta ni harritua nintzen hango giroarekin. Hemen iparraldean ez da ohitura ainitzik trikitixa entzuteko, baina orain hasi da pixkat sartzen.

**ETA ZE MUSIKA MOTA EGITEN DUZUE?**
Folk musika batez ere, "Tapia eta Leturia"ren gisako zerbait, bainan reggae pixkat, okzitaniako dantza batzuek eta orain iparraldean zabaltzen hasi diren dantza batzuek ere jotzen ditugu, 'kajun', 'bourré'...

**TRIKITIXA BATERIA ETA BAXUAREKIN NAHASTEN DUTEN TALDEAK HAINBERTZE UGARITU DIREN HONETAN, EZ AL DAGO ERREPIKATZEKO ARRISKURIK?**
Bai, guk hori uste dugu, trikitixak berez badu bixitasun bat giroa berotzen duena, eta musika mota guzietan ibiltzen ahal da gaur egun. Bainan pentsatzen dut behar direla bide batzuek hautatu eta hortarat lan egin, guzien esperientzia bilduz.
Horregatik behar da estilo desberdina edo bertze musika mota bat atxeman, hats pixka bat emateko, kristoren talde pila baita estilo hortan. Guk zernahi gauza jotzen dugu baina nahi ginuen gauza batzuek pixka bat sakondu, italiatik heldu diren erritmo diferenteak adibidez.

**LARUNBAT HONETAN SARAN JOKO DUZUE, HERRIKO ETXEKO ARKUPEETAN.**
Bai, hortxe izanen da kontzertua eta saiatuko gara abenduko giro hotza berotzen. Ez da arkupean egiten den lehen musika saioa, ihauterietan ere erromeria hor egin baitzen, eta agian jendea etorriko da.

*"Horregatik behar da estilo desberdina edo bertze musika mota bat atxeman, hats pixka bat emateko, kristoren talde pila baita estilo hortan."*

DATUAK..........

❶ *Luis Mari Belarra orain 26 urte jaio zen Doneztebeko Olabidea baserrian, baina bi urte bertzerik ez ditu aizkoran entrenatzen.*

❷ *Aurten Euskal Herriko 3. mailako txapela eta Nafarroako 2. mailakoa irabazi ditu, azken hau Doneztebeko feria egunean.*

❸ *Martin Mindegia –Mikel aizkolariaren anaia– da bere entrenatzailea. Etxekoen laguntza ere «ezinbertzekoa» dela uste du Luis Marik.*

❹ *Datorren urtean lehen mailan aritzeko entrenamenduak serioxeago hartu beharko dituela uste du.*

TESTUA:
***AITOR AROZENA***
ARGAZKIA:
***J.M. IRIGOIEN***

☞ **Luis Mari BELARRA** *Doneztebeko aizkolaria*

# "Datorren urtean lehen mailan mantentzeko eginahala eginen dut"



**«Aizkoran hasi nahi duenari, *amor propio* haundia behar dela erranen nioke»**

Aizkorarako afizioa aspalditik badu ere, serioski entrenatzen bi urte bertzerik ez daramazki Luis Mari Belarrak. Eta bi urte horietan, aurtengoa izan da onena, duikabe, nagusitasun osoz irabazi baititu Euskal Herriko hirugarren mailako eta Nafarroako bigarren mailako txapelak, Arabako Eskuernagan eta Doneztében. Belarrak *«lan luzeetan motzetan baino hobekixiago»* moldatzen dela uste du, *«halere denean hobetu behar dut»*. Adituen ustez, ordea, azken urteotan gehien hobetu den aizkolaria da doneztebarra eta teknika aldetik arras ona omen da. *«Ez dakit ba, hori horrela bada, maisuaren lana izanen da dena»* dio. Entrenatzaile gisara Martin Mindegia dauka, Mikelen anaia. Orain arte ez omen du aparteko entrenamendurik egin, *«mendian pixko bat ibili eta etxean egur batzuk moztu. Datorren urtean, lehen mailan aritzeko serioxeago hartu beharko dut, gimnasio pixko bat egin...»*.

**«KIROL GARESTIA DA AIZKORA»**

Datorren urtean, izan ere, hainbat txapelketa eta desafioetan garaile suertatu diren aizkolariekin aritu beharko da doneztebarra. *«Ez da batere erraxa izanen, baina kategoria mantetzeko eginahalak eginen ditut. Nere maila ematen badut kontent gelditukonaiz»*. Bai Nafarroan, bai Euskal Herria mailan arerio gogorrak izanen ditu, baina berak gazteenak ikusten ditu kontrario nagusi bezala, maila mantentzeko: *«Etxeberria, Arria... denek nahiko lan emanen dute hor»*.

Txapelketa ofizialetan ez ezik, apostuetan ere parte hartu du Belarrak urte honetan eta, seguraski, ikusgarriena Arria V.ari Donezteben irabazi zioena izan zen. Horretan ere segitzeko intentzioa du, izan ere *«aizkoran gastuak haundiak dira eta dirurik gabe ez da deus egiterik. Zure zortzi orduko lana behar duzu honetan segitu nahi baduzu»*. Momentu honetan langabezian badago ere, *«lanean hastekotan»* dagoela erran digu Luis Marik.

Hainbat aizkolari eman dituen inguruko azken emaitza da Belarra. Bere ustez, Malerrekan aizkorarako dagoen afizioa *«ikaragarria da. Apostu bat antolatu eta frontoiak gainezka egiten dute. Ez da oraingo kontua, Mindegia bera txapelak irabazten hasi baino lehen hemen izugarrizko afizioa bazen»*.

*"Malerrekan aizkorarako dagoen afizioa ikaragarria da, baina ez da oraingo kontua. Mindegia bera txapelak irabazten hasi bainoi lehen ere bazen hori."*

## Leitzako gazteak, futbol zelairik gabe baina lanean gogotsu

Joan den urtean kadete taldean aritutako jokalariekin sortu du aurten Leitzako Aurrera elkarteak jubenilen taldea. Beraz, ekipo oso gaztea dute, gehienak lehen urtekoak, eta kategoria guzientzat berria dela kontuan hartuz ez dute nahi bezala hasi denboraldia.

Gainera, talde nagusia jendez eskas xamar dabilela eta, larrienak lehen taldera pasatzen joan dira denboraldi hasiera honetan. Hau dena gutxi balitz, herrian futbol zelairik gabe geratzeak eta *etxeko* partiduak Lekunberrin jokatu behar izateak ez die kontuak batere xamurtu Leitzako gazteei. Juantxo Larraia entrenatzaileak ongi dioen bezala, *«zaila da astean zehar nola edo hala entrenatu, eskolako patioan edo frontoian eta gero, asteburuan, partidu on bat jokatzea belarrezko futbol zelaian»*.

Sailkapenean, 13 taldeko multzoan hamaikagarrenak daude, zortzi partidutik bi irabazi eta sei galdu baitituzte. Halere, kontuan hartu behar da partidu bakarra jokatu dutela Lekunberrin, gainerako guziak kanpoan.

Juantxo Larraia entrenatzaileak Iruñean lan egiten duela kontuan hartuz, asteko bi entrenamenduetarako, lekuarena ez ezik, beste arazo bat sortzen da. *«Arratsaldeko turnoa daukadanean, astez haundiekin aritzen dira eta larunbat goizean nik hartzen ditut, goizez banago nik neuk hartzen ditut»* dio entrenatzaileak.

## AURRERA (jubenilak)




| Jokalaria | Postua | Adina | Herria |
|---|---|---|---|
| Angel Vicente | Atezaina | 16 | Leitza |
| Josu Urkiola | Atezaina | 15 | Leitza |
| Javier Zabalo | Atzelaria | 16 | Leitza |
| Iker Alduntzin | Atzelaria | 16 | Leitza |
| Joseba Sagastibeltza | Atzelaria | 15 | Leitza |
| Unai Sagastibeltza | Atzelaria | 15 | Leitza |
| Jon Otermin | Atzelaria | 15 | Leitza |
| Diego Riaño | Atzelaria | 17 | Leitza |
| Jose Luis Barberia | Erdilaria | 16 | Leitza |
| Joseba Villanueva | Erdilaria | 16 | Ezkurra |
| Jon Ander Hernandorena | Erdilaria | 16 | Leitza |
| Josu Bildarraz | Erdilaria | 16 | Leitza |
| Aitor Makazaga | Erdilaria | 16 | Leitza |
| Mikel Diosdado | Erdilaria | 16 | Leitza |
| Santi Sagastibeltza | Erdilaria | 16 | Leitza |
| Igor Bengoetxea | Aurrelaria | 15 | Leitza |
| Jon Kanflanka | Aurrelaria | 17 | Leitza |
| Eneko Barberia | Aurrelaria | 18 | Leitza |
| Javier Riaño | Aurrelaria | 16 | Leitza |
| Jesus Saralegi | Aurrelaria | 16 | Leitza |

### Klubaren datuak

C.D. AURRERA K.E.

LEITZA

**Elkartearen izena:** Aurrera
**Sorrera:** 1972*
**Bazkideak:** 300
**Helbidea:** Labetxea - Elbarren 31880 Leitza
**Tel.:** 510187-610606
**Aurrekontua:** 6 milioi inguru
**Futbol zelaia:** - (Lekunberrin jokatzen dute aurten)
**Lehendakaria:** Jose Mari Razkin
**Sekzioak:** Futbola (Preferente, 2. jubenilak, neskak), pilota eskola. Zenbait kultur eta kirol ekitaldiren antolaketan parte hartzen du.

* Kirol elkartearen sorrera. Elkartea, berez, dexente lehenago sortua.

### Jubenilak

**Maila:** 2. Jubenila
**Iaz:** -



**Juantxo LARRAIA** *Entrenatzailea*

## «Partiduetako azken hogei minutuetan nabari da taldearen gaztetasuna»

***Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?***
Taldea ateratzea da aurtengo helburu bakarra, mutikoek jokatzen segitzeko gogoa baitzuten. Jende oso gaztea dugu eta, gainera, bizpahiru lehen taldearekin jokatzen ari dira. Beraz, zaila da bestelako helbururik jartzea, kirola egitea eta jokatzea baino. Gaztetasuna nabari da, batez ere partiduetako azken 20 minutuetan, mutikoak nekatzen baitira. Ordura arte igual berdinduak gaude, baina azkeneko minutuetan galdu ditugu zenbait partidu. Gero, futbol zelaiaren arazoa dago, modu egokian ezin entrenatu…

***Nola definituko zenuke taldea?***
Oraindik gorputza egitea falta zaie jokalariei, beraz, teknika aldetik hobekiago ikusten ditut indar aldetik baino.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## 'Herriak eta Hiriak'

### MINTZALDIAK

**ETXALAR**

**Abenduaren 5ean**
Alizia Stürtze historialariak "Sorgintasuna" gaia landuko du. Eskola Zaharretan, arratseko 8etan hasita.

**SENPERE**

**Abenduaren 11n**
Jakes Cazaubon Senpereko bizimodu aldaketari buruz mintzatuko da Oxtikenea Elkartean, gaueko 9etan.

**SARA**

**Abenduaren 12an**
"Langileen Kooperatiba Mugimendua" aztertuko du Xabi Larralde ekonomilariak. 21:00etan Omordian.

### KONTZERTUAK

**SARA**

**Abenduaren 6ean**
'Eztanda' trikitixa taldeak joko du Sarako Herriko Etxeko Edantegian, gaueko 10,30etan.

### KANTALDIAK

**ETXALAR**

**Abenduaren 7an**
'Giltzarri' bortzirietako gazteen abesbatzak emanaldia eginen du Elizan, eguerdiko 12etatik aitzinerat.

### AFARIAK

**ETXALAR**

**Abenduaren 13an**
Bertso-Txiste Afaria ospatuko da Herriko Ostatuan, eta bertan Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Xabier Silveira ariko dira bertsotan, eta Lasarteko Txiskolariak txiste kontari.

## BASERRIA



### ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.400 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 275 pta/kilo
- **Zerramak:** 140 pta./kilo bizirik.



### BEHIKIA

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | .545 |
| 1.koa | .525 |
| 2.koa | .505 |

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | .565 |
| 1.koa | .545 |
| 2.koa | .515 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 24.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 28.000 eta idixkoak 43.000 Pta.
**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 380 Pta./ Kg. Kanal. Behi gorri ona: 450 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE**



Sorgintasunari buruzko mintzaldia izanen da bihar Etxalarren.

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *Herriak eta Hiriak*

Kulturako orrialdean aipatu dugunez, *Eztanda* trikitixa taldeak kontzertua eskeiniren du Sarako Herriko Etxearen azpikaldean, arkupeetan, eta bihar bertan, abenduaren 5a eta ortzirala, mami haundiko mintzaldia izanen da Etxalarko Eskola Zaharretan "Sorgintasuna" gaiari buruz, Alizia Stürtze historialari eta Egin egunkariko ohiko kolaboratzaileak emana.
Ekitaldi hoiek guziak, heldu den astehondarrekoak barne, ezkerraldeko agendan ikus ditzakezue, bainan segur gaude zuetako aunitzek ostatu eta dendetan irakurri dituzuen esku-programei esker ikasi izanen duzuela ekitaldi denen, edo gehienen berri.
Bakotxak ikusiko du bere gustoko ekitaldia zein duen, bainan aukera zabala dagoenik ezin ukatu bederen.
Ia antolatzaileen helburuak errealitate bihurtzen diren eta mugaz gaindiko harremanak sendotu eta gaur egun oraindik nabarmenegiak diren diferentzia horiek murrizteko lagungarri den kultur aktibitatea.
Ez litzateke gutti.

## LIBURUAK



«Zozoak beleari»
Jon SARASUA eta Andoni EGAÑA
ALBERDANIA

Bertze hainbat eta hainbat lanek bezalaxe, asteburu honetan burutuko den Durangoko Euskal Disko eta Liburuen azokan ikusiko du argia "Zozoak beleari" liburuak ere, bi bertsolari karismatiko hauek burutazio eta oroimen pertsonalak elkarri kontatuz idatzitako gutun sorta biltzen duen perla.
Lagun minak dira Jon Sarasua eta Andoni Egaña, eta beren laguntasuna mintzagai izanen dute gutun horietako zenbait pasartetan, baina bertsolaritzarekin hain lotura estua duten bi pertsona izanik, pentsatzekoa da bertsoen mundua isladatu dutela batez ere, beraien hitzetan.
Gauza jakina da, gainera, ikuspuntu arras diferentea dutela gai batzuei dagokionean behinik behin –txapelketak–, eta desakordio horrek are aberasgarriago bihurtzen ditu gogoeta hauek.

JAKIN BEHARREKOAK

# Hipoteka mailegua


Etxebizitza erosterakoan mailegua ongi aukeratu behar da.

**M**aileguen interesen jautsiera dela-eta, horren inguruko galdera aunitz izan ditugu aurten gure bulegoetan. Izan ere, jende ugarik jo du IRATXEra, eskriturak sinatu aitzinetik eta baita ondotik ere, maileguaren baldintzak hobetu edota ahalik eta hobekien kontratatzeko asmoz. Ez da harritzekoa, etxebizitza erosteko kontratatu beharreko mailegua ongi aukeratzea bizitzako erabakirik garrantzitsuenetakoa baita.

## Babes Ofizialeko Etxeak eta bertze

Ea eskriturak sinatu eta gero interesak aldatu daitezkeen galdetzen digutenei beren banketxeekin negoziatzeko erraten diegu, eta Babes Ofizialeko Etxeak delako etxebizitza erosi dutenei berriz, mailegu horren baldintzak errebisatu arte espetzeko. Izan ere, 1995 baino lehenagoko maileguak bortzgarren urtean errebisatzen baitira, 1996ko maileguak hiru urteren buruan, eta 1997koak 1998an.

Hala ere, B.O.E. delako etxebizitza erosteko bidean daudenendako bada bitxikeri interesgarri bat. Hau da, kontratua sinatuta eskriturak sinatzearen zain dagoen jendeak maileguaren baldintzak hobetzen ahal ditu, Nafarroako Gobernuaren dekretu bati esker. Dekretu horren arabera, B.O.E. etxebizitza erosten duenak saltzaileak eskeinitako mailegua bertan beheiti utzi eta interes baxuagoko mailegua kontratatzen ahal du, beti ere eskriturak sinatzeko momentuan.

*«B.O.E. etxebizitza erosten duenak saltzaileak eskeinitako mailegua bertan beheiti utzi eta interes baxuagoko mailegua kontratatzen ahal du».*

Ez da aukera makala... ezta errexa ere. Saltzaileek oztopo ugari paratzen baitute kantzelazioaren gastuak erosleak ordaindu behar dituela erranez. Horri buruz, erran behar da saltzaileei dagozkien gastuak direla-eta ez bagara ados paratzen, komisioa ordaindu eta kontratua sinatu ondotik diru hori berreskuratu dezakegula epaitegian.

Gaia arras zaila da, eta informazio gehiago gure bulegoetan jasoko duzu, hala nahi izanez gero.

Mikel BEZUNARTEA
Baztan eta Leitzako K.I.U.B.ko arduraduna

## DISKAK



«El infarto»
KOMA
GOR

Iruindarrek duela gutti atera dute karrikara beren bigarren lana, eta aitzinekoaren ondoan produkzioa nabarmen hobetu dela erran behar da. Abestien hitzak puskaz argiago aditzen dira, eta soinua ere halaxe gelditu zaie, garbiagoa.
Eguneroko bizitzatik, errealitatetik ateratako hitzak dira nagusi Komaren disko berrian. Pederastak, esplotatzaileak, kantautoreak... eta bertze hainbertze pertsonairi buruz solasten dira "malaostia"z –baina lehen diskoko umorea galdu gabe– betetako 12 abestietan. Gero eta gehiago dira Komaren kontzertuetarat agertzen diren zaletuak, eta Brigi Duque abeslariak berriki aitortu duenez gaztetxeak ttiki gelditu zaizkie dagoeneko. Noraino ailegatu nahiko ote dute.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

### IKASTAROAK

**BERA**

**▸ Abenduaren 9an** arratsaldeko 7etatik 8,30ak bitarte, Harnas Hartze Terapiari buruzko solasaldia antolatu dute Uxua Emakume Taldekoek Ricardo Barojan.

### KULTUR EGUNAK

**ITUREN**

**▸ Abenduaren 5, 6 eta 7an** ospatuko dira Ibintza kultur taldeak antolatzen dituen ekitaldiak. Xehetasunak Herriz Herriko atalean, Malerrekako berrietan aurkituko dituzu.

### MENDI IRTEERAK

**ELIZONDO**

**▸ Abenduaren 7an** Elizondotik ateri eta Aizkolegira goituko dira Baztango Mendigoizaleak, handik Sunbillarat gateko.

**▸ Abenduaren 14an** berriz, Urrizpilotaraino ganen dira, Altza erretatik aterita.

### GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**▸ Abenduaren 1etik 7rat**
Etxalar, Sunbilla, Lezaun, Leitza, Goizueta.

**▸ Abenduaren 8tik 14rat**
Igantzi, Ituren, Iturralde eta Goizueta.

**▸ Abenduaren 15etik 21erat**
Lesaka, Narbarte, Lezaun, Urdazubi eta Goizueta.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko 948-*
*Iparraldetik 00-34-48*

**631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. Bainua eta sukalde mobleztatua. Eguzkitsua. ☎ 630508.

**ELIZONDO.** Pisua salgai, dena mobleztatua. 90 m². ☎ 452339.

**DONAMARIA.** Baserria salgai, bere baratza eta borda ttikiarekin. Sotoa, etxebizitza, ganbara eta larraina atarian. ☎ 510540 (gauez).

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**Pisu** mobleztatua errentan emanen nuke. ☎ 630270.

**LESAKA.** Pisua salgai. ☎ 637050.

**Bortziriak inguruan** (Lesaka, Bera, Sara, Urruña) baserri bat errentan hartu nahi genuke. ☎ 07.33. 559200105 (Bixente, afal orduetan).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**LESAKA.** 130 m²ko bajera errentan emanen nuke, Bittiria karrikan. ☎ 637404 (Bulego orduetan).

**LESAKA.** 23 m²ko bajera salgai, Bittiria 37. ☎ 637938.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK


ARANTZA ZURGINDEGIA
*Jose Miguel Errandonea*
Klase guztietako zurgin lanak
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA


## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK


ttipi-ttapa
**Inprenta lanak egiten ditugu**
- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 631188


## LANA

### 301 ESKARIAK

**Laguntza klaseak:** piano, tekladoak, solfeo, OHO, DBH, UBI. Esperientzi haundia. Zure etxera joan naiteke. ☎ 970-406651 (Utzi mezua, Garbiñe).

**Haurrak zaindu** edo etxeko lanak eginen nituzke. ☎ 630320 (Gloria).

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Emakume bat** behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 631239 (Jabier). Mesedez, orain bi aste deitu zenutenak deitu berriro.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Montesa Cota 307** motoa salgai, matrikulatua eta egoera onean. ☎ 580462.

**Yamaha XT600**-E motoa salgai, trailekoa eta egoera ezinhobean. ☎ 631456 (eguerditan).

**Peugeot 306 S-16** salgai, 95ekoa, ekipamendu osoarekin. ☎ 630766 (Joxe Mari).

**Renault Clio 16V** salgai, 91ko abendukoa, extrak eta mantenimendu liburuarekin. ☎ 631015 (Afalorduan).

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK


SAMPI ARAGON
Bigarren eskuko kotxeak:
4 Seat Panda
Citroen AX
Cadett Van, Golf
✆ 45 03 54 • DONEZTEBE

BERABI tailerrak
✆ 631445 • BERA
Bigarren eskuko kotxeak:
Peugeot 309 NA-Y
Ford Fiesta 1.L, Nissan Trade
Nissan Primera 4 urtekoa
Kotxe berrietan **ofertak**

MENDAUR MOTOR
✆ 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Opel Astra, Ford Fiesta, Suzukiak: Samurai eta Vitara laburrak eta luzeak, gasoil eta gasolinazko autoak aukeran.


## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**Setter** arrazako zakurkumeak salgai. Merke. ☎ 627618.

**Boxer** arrazako zakurkumeak salgai. ☎ 634111.

**Sabueso** arrazako zakurkumeak salgai, basurdetarako. Hiru hilabetekoak. ☎ 453079.

**Zerri gizenak**, eta ahari mutur gorria eta buru motza salgai. ☎ 634067 (eguerditan).

**Asto bat** salgai, lanean ondi dakiena. Nahi izanez gero koilarona eta karroarekin. ☎ 615016.

**16 ardiren** eskubideak salgai. ☎ 510204.

**Artantxu** aharikoa, salgai, adarrak dituena eta muturkakua. ☎ 450216 (Zubieta).

## ANIMALIAK

### 602 EMATEKO

**Hilabeteko zakurkumea** erregalo emanen nuke. ☎ 610040.

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

**Azaroaren 23an** zilar eta urre koloreko erlojua (korrea haundikoa) galdu nuen Lesakako Bereau ostatua eta zubiaren artean edo Iruñera joaki den Baztanesako arratsaldeko zerbitzuan. ☎ 635045 (Beatriz).

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Kongeladore** haundia salgai, 400 litrokoa, motorra maiatzean aldatua dauka. ☎ 610783.

**Serigrafiarako tresneria** salgai, prezio onean, berria. Erosketarekin materiala oparitzen dugu. ☎ (943)

619000 (Mikel).

**Su-egurra** salgai. ☎ 393056.

**Bi berogailu** salgai, egurrezkoa bata eta gasoilezkoa bertzea. ☎ 393056.

**Gasoleozko kaldera** salgai, bikaina eta merkea, 1.000 litroko depositoarekin. Kalefakzioa eta ura berotzen ditu. ☎ 510059.

**Sukalde ekonomiko-kalefaktorea** salgai, egurrezkoa, DEVILLE markakoa. ☎ 630270.

**Esne tankea** salgai, Manus markakoa eta 100 litrokoa. Estreinatu gabea. ☎ 631279.

## HARREMANAK

## 801 AGURRAK

**Beni Labaien-i zorionak**; abenduaren 19an urteak beteko dituzulako. Zure urtebetetze egunean txanpaina ekarri ikasleentzat.

**Berako Joxean Igoari:** zorionak azaroaren 24an urteak bete zituelako. 24 muxu Sunbillatik, aunitz maite zaitugun neska batzuren partez.

**Arritxabaletako Jon Bazterrika** zoriondu nahi dut, azaroaren 23an urteak egin dituelako. Egun zoriontsua pasa dezala bere Iturengo familiaren partez, eta muxu haundi bat Itziarren partez.

**Guadalupe Montes** mexikarrak urteak beteko ditu abenduaren 13an. Zorionik beroenak Elizondotik bere amaginarrebaren partetik.

**Berroetako Nekane**ri: Ez dago dudarik oso jatorra eta bihotz onekoa zarela. Momentu hauetan zure bihotza A.S.ek dauka. Lastima ez daukazula bixki bat!!!

**Jon A**-ri: etzazu gehiegi lan egin eta ez zein igandetan ematen duzun buelta bat herritik. Azpilkuetako lagunak.

**Lesaka**ko Mikel Oiartzabali: zure ipurdia baino politagoa da zure aurpegia. Miren P.

**Etxalar**ko Patxi Telletxeari: zorionak azaroaren 25ean urteak bete dituzulako. Ea beti bezala eroeroa segitzen duzun. Zure familia.

**Zorionak** Etxalarko Nagore eta Jaioneri abenduaren 8 eta 10ean urteak beteke dituzuelako. Kuadrilla osoaren partez zorionak eta ea ospatzen dugun.

## URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Jon Iturralde Gortari** arizkundarrak 15 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Zorionak guraso eta arreben partez. Muxu bat.



**Leonita Garaikoetxea Aintziart** arraioztarrak urteak bete ditu azaroaren 24an. Zorionak. Asko maite zaitugu.



**Pablo Mendiburu** zigatarrak 22 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak sorpresa, sor-luisa, sor-bete eta sormariren partez.



**Guadalupe Montes** mexikarrak urteak beteko ditu abenduaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat Oizko familiaren partez.



**Olaia Anso** oiztarrak 13 urte bete ditu azaroaren 29an. Zorionik beroenak atautxi, amatxi, osaba, izeba eta Ikerren partez.



**Endika Martin Urriza** elbetearrak abenduaren 9an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu aunitz. Iker eta gurasoak.



**Estitxu Arretxea** sunbildarrak 18 urte beteko ditu abenduaren 12an. Zorionak kuadrilaren partez.



**Pedro San Sebastian** beratarrak 45 urte beteko ditu abenduaren 9an. Zorionak familia guziaren partez.



**Jaione Rodrigez Etxepare** lesakarrak 2 urte egin ditu abenduaren 4an. Zorionak.



**Fermin Larralde Cordoba** elizondarrak urtea bete du abenduaren 2an. Zorionak familia guziaren partez.



Muxu haundi bat Donamariko **Iñigorentzat** Izaskun, aita, ama eta familia guziaren partez. Abenduaren 10ean 5 urte beteko ditu.



Azpilkuetako **Jon Alkasenak** 19 urte bete ditu. Zorionak zure lagunen partez.



**Ane Apezetxea** goizuetarrak 6 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak eta muxu bat Aitor eta gurasoen partez.



**Andoni Riopedre Huizi** beratarrak abenduaren 7an beteko ditu 6 urte. Aunitz urtez bere familiaren partez.



**Ibai Etxeberria Burlada** aranztarrak abenduaren 2an 2 urte bete ditu. Zorionak guraso eta familiaren partez.



**Beñat Txoperena** igantziarrak abenduaren 8an beteko ditu urteak. Aunitz urtez Oihana eta gurasoen partez.



**Maite Apezetxea Mutuberria** goizuetarrak 14 urte beteko ditu abenduaren 9an. Zorionak etxekoen partez.



**Oihana Aranburu Zelaieta**k 10 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak aita, ama eta Anderren partez. Muxu bat.

**Pablo Mendiburu** zigatarrak 22 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak sorpresa, sor-luisa, sor-bete eta sormariren partez.

**Guadalupe Montes** mexikarrak urteak beteko ditu abenduaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat Oizko familiaren partez.

**Olaia Anso** oiztarrak 13 urte bete ditu azaroaren 29an. Zorionik beroenak atautxi, amatxi, osaba, izeba eta Ikerren partez.

**Endika Martin Urriza** elbetearrak abenduaren 9an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu aunitz. Iker eta gurasoak.

**Estitxu Arretxea** sunbildarrak 18 urte beteko ditu abenduaren 12an. Zorionak kuadrilaren partez.

**Pedro San Sebastian** beratarrak 45 urte beteko ditu abenduaren 9an. Zorionak familia guziaren partez.

# DONEZTEBEko UDALA

Iragarki honen bidez jakinarazten dugu 1997ko abenduaren 31an akitzen dela borondatezko epea zerga guztiak ordaintzeko.
1998ko hilbeltzaren 1etik 31rarte %5eko errekargua jarriko zaio eta otsailaren 1etik aitzinera %20ko errekargua izanen da.

Aditzera ematen da orok jakin dezan.

Donezteben, 1997ko azaroaren 26an.

Alkatea
Miguel San Miguel

# URTEBETETZEAKBALDIN

**Sail hau debaldekoa da.**
**Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara**

**ttipi-ttapa**
Urtebetetzeak Sailerako
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

*Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.*



**Nekane Zelaieta** barañaindarrak 11 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak familiaren partez.

**Nerea Bertiz Etxarte** igantziarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak guraso, Joseba, amatxi eta osabaren partez.

**Imanol Bazterrika** iturendarrak 15 urte bete ditu azaroaren 24an. Zorionak zure familia osoaren partetik.

**Jon Mutuberria Huici** elgorriagarrak 10 urte bete ditu azaroaren 27an. Zorionak Kristina eta gurasoen partez. Muxu bat.

Coloradon (EEBB) dagoen **Patxikito Iriarte**k abenduaren 13an urteak beteko ditu. Zorionak Lesaka, Sunbilla eta Doneztebeko senide guzien partez, bereziki bere ama eta baita ere bere alaba Vicky eta bere seme Frank-en partez.

**Itxaso Labiano Anzizar**ek urteak beteko ditu abenduaren 5ean. Zorionak Doneztebeko atatxi-amatxi, guraso eta Iratxeren partez.

**Unai Madariaga Iribarren** urroztarrak 6 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu bat. Aritz, Xabier eta gurasoak.

**Mikel Etxegarai Diez** donostiarrak abenduaren 1ean 11 urte bete ditu. Zorionak Elizondoko familiaren partez.

**Iñigo Apezetxea Iparragirre** aranztarrak 11 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak eta muxu bat guraso eta Asierren partez.



**Ainhoa Saldias** labaiendarrak 7 urte bete ditu azaroaren 20an. Zorionak amatxi eta bere familiaren partez.

**Hilari Mutuberria**k urteak bete ditu azaroaren 24an. Zorionak guraso, senide eta iloben partez.

**Agustin Larratxea** elizondarrak 42 urte beteko du abenduaren 15ean. Zorionak emaztea eta seme-alaben partez.

Etxalarko **Xabier Ariztegi Elizagoien**eri azaroak 26an urteak bete dituelako zorionak, familiaren partez.

**Izaskun Leiza** lesakarrari zorionak, abenduaren 5ean 24 urte beteko ditu-eta. Familiaren partez.

**Joxean Leiza** lesakarrari zorionak, abenduaren 5ean 26 urte bete dituelakoz. Familiaren partez.

**Jon Olaizola Otxoteko** lesakarrak abenduaren 8an urte bat beteko du. Zorionak familiaren partez.

**Mayte Sanz Ganboa** beratarrak 39 urte bete ditu abenduaren 4an. Jone, Jose Mari eta Jaioneren partez, zorionak.

**Titino Etxabe Ladera** zugarramurdiarrak 33 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak Jose Mari eta Jaioneren partez.

**Jose Mari Etxabe Sanz** beratarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 7an. Zorionak Jaione, Jone eta gurasoen partez.



**Jose Diego Sarratea Arregi** doneztebarrak abenduaren 4an bete ditu urteak. Zorionak seme-alaba eta emaztearen partetik.

**Gorka Sarratea Arregi** doneztebarrak 6 urte beteditu abenduaren 4an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.

**Ana Sarratea Arregi** doneztebarrak 3 urte egin ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.

**Aitziber Maisterrena** lekaroztarrak urteak beteko ditu abenduaren 18an. Zorionak munduko neskarik ederrenari. B.G.G.

Elgorriagako **"Txato"**ri zorionak bere urtebetetze egunean, eta eskerrik asko denagatik eta lagun ona zarelako.

**Ander Abuin Yepes** lesakarrak abenduaren 31n 4 urte beteko ditu. Zorionak lehengusu eta anaien partez.

**Itxasne Otxoteko Abuin** lesakarrak abenduaren 14an 7 urte beteko ditu. Zorionak anaia eta lehengusuen partez.

Zorionak atta eta ama! **Juan Luis**ek azaroaren 15ean bete ditu urteak eta **Deñe**k abenduaren 10ean beteko ditu. Zorionak Jon eta Itxasneren partez.

Zorionak **Joritz**, zure laugarren urtebetetzean, abenduak 24an. Arreba, aita ,ama, aiton-amonak, Elsa, Carmen eta Lurdesen partez.



**Olaia Salgado** lesakarrak 6 urte bete ditu abenduaren 1ean. Zorionak aitatxo eta familiaren partetik.

**Pablo Agirretxe Landa**k abenduaren 11n 9 urte beteko ditu. Zorionak Sonia eta Olaiaren partez.

**Jabier Zelaieta Aramendi** beratarrak 45 urte egin ditu azaroaren 28an. Zorionak bere lankideen partez.

**Josu Irurzun Luna-Vitoria** lesakarrak urtea bete du azaroaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.

**Laurendi Zelaieta Fernandez** elgorriagarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 9an. Zorionak guraso, Ugutz eta Garaileren partez

**Unai Barasoain Etxepare** iruñearrak 3 urte bete ditu azaroaren 19an. Zorionak.

**Arkaitz Oiartzabal Rodriguez** goizuetarrak 10 urte bete ditu azaroaren 30ean. Zorionak zure familiaren partez.

**Joseba Seisdedos Larrainzar** lesakarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 12an. Zorionak guraso eta arrebaren partez.

**Benigna Etxeberri Etulain** txiletarrak abenduaren 12an beteko ditu urteak. Zorionak bere alaba eta familiaren partez.

**Maria Jesus Zubieta Portu** lesakarrak 20 urte bete ditu azaroaren 24an. Zorionak potxola. Lourdes, Begoña eta Amaia.



**Amaia Garazo Mindegia** beratarrak 12 urte beteko ditu abenduaren 24an. Zorionak aita, ama eta anaiaren partez.

**Irati Errandonea Zozaia** beratarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 12an. Zorionak Amaia eta Mekekeren partez.

**Josune Ibarra**k 17 urte bete ditu azaroaren 25ean. Zorionak gelako lagunen partez. Ea noiz gonbidatzen gaituzun txanpain botil batera!

**Martina Baleztena** doneztebarrak abenduaren 8an beteko ditu urteak. Zorionak eta segi horren atsegin eta zoriontsu.

**Unai Igoa Migeltorena** beratarrak 5 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak amatxi, atautxi eta osabaren partez.

**Beni Labaien Iñigo**ri, abenduaren 19an urteak beteko dituelako zorionak!! Doneztebeko DBHko 2.A eta B. Egun ona pasa.

**Victoriano Iribarren Iribarren** etxalartarrak urteak bete ditu azaroaren 17an. Zorionak familiaren partez.

**Titino Etxabe Ladera** zugarramurdiarrak 34 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak familia guziaren partez.

**Inaxio Olhagarai Aleman** zugarramurdiarrak 33 urte bete ditu abenduaren 4an. Zorionak familia guziaren partez.

**Ainhoa Altzuguren Mitxelena** beratarrak urtea beteko du abenduaren 19an. Zorionak zure guraso eta Amaia ahizparen partez.

**A D O S**

*Julian Izura Nuin*

**Telefonoak:** 451841 • 908. 77 86 53 • e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran **DONEZTEBE**



**Elgorriaga.** • Pisua, garaje eta ganbararekin salgai. Premiazkoa izateagatik, merke salduko dira.



**Mugairi.** • Pabiloi industrialak salgai.



**Elizondo.** • Braulio Iriarten pisu erreformatua salgai.

**Bordak** erosi nahi dira edozein tokitan. Egoerak ez du inporta.



**Igantzi.** • Lehenbiziko pisua salgai. Berri berria.



**Etxalar.** • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.

**Etxeak egiteko lur erabilgarriak:**
- Mugaire: 500 m²

**Belategiak:**
- Oitz: 10.000 m²
- Doneztebe: 12.000 m²



**Bera.** • Etxe berria salgai. 3.000 m². Suspela auzoan.



**Donamaria.** • Hiru solairuko etxea salgai. Baratzea eta garagea. Arras berritua.

**Errentan emateko pisuak:**
- Donezteben
- Narbarten
- Legasan

**SEGUROS LAGUN ARO**
ASEGURUAK

Orain nahi duzun asegurua egiten ahal dizugu:

Etxe, komertzio, auto, bizitza edota jubilazio aseguruak.

*ESKATU AURREKONTUA*
*KONPROMEZURIK GABE*

**AMAIUR**

**DONEZTEBE**ko sarreran © **948.450400**





**Berako OSTARGI optikan, errate bateko, %10eko DESKONTUA izanen duzu...**

# TTIPI TXARTELArekin

## dirua eta gauza gehiago ere irabazten da




## DESKONTUAK

| | | |
|---|---|---|
| **AISIALDI AKTIBIDADEAK** | | |
| BKZ | Bertiz | %10 |
| **AUTO TALLERRAK** | | |
| MENDAUR MOTOR | Doneztebe | %10 Kubiertetan |
| SANPI ARAGON | Doneztebe | %10 Kubiertetan |
| PEDRO GARMENDIA | Elizondo | %20 Olio aldatzeak |
| DATUCELAY | Elizondo | %15 Bateria + amartiguadoreak |
| SANSIÑENA | Elizondo | %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak |
| LACOSTA | Irurita | %100 Pre-ITV |
| ZALAIN MOTOR | Bera | %5 Errekanbiotan |
| **AUTO-ESKOLAK** | | |
| SEMPER | Bera | %10 Matrikulan |
| **ARGAZKI DENDAK** | | |
| GOIKO | Bera | %10 Errebelatze eta arg. materialak |
| AYLA | Bera | %10 makinetan izan ezik |
| MENA | Doneztebe/Elizondo | %10 |
| ZALDUA | Doneztebe/Elizondo | %10 |
| **ARROPA DENDAK** | | |
| EDURNE | Bera | %10 (5.000 Patatik. aurrera) |
| SAIOA | Doneztebe | %10 |
| J.J. PICABEA | Doneztebe | %10 Galtza marka batzuetan ez |
| TXIRRISTA | Doneztebe | %10 |
| KAMAMILA | Doneztebe | %10 |
| PICABEA BOUTIQUE | Doneztebe | %10 |
| IPINGI | Elizondo | %10 |
| COCOS | Elizondo | %10 |
| KATTALINGORRI | Elizondo | %10 |
| FANTXIKE | Elizondo | %10 (5.000 Patatik. aurrera) |
| **EDARI BANATZAILEAK** | | |
| MANUEL TABERNA | Bera | %3 |
| **ELEKTROGAILU DENDAK** | | |
| MARIXUS | Lesaka | %5 Elektrogailuetan %15 Antenetan |
| ALTZURI | Lesaka | %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek. |
| RADIO BIDASOA | Bera | %10 Deskontu baleak |
| **ESTETIKA ZENTRUAK** | | |
| AMAIA | Doneztebe | %5 Kosmetikan %10 Oparietan |
| BEATRIZ | Elizondo | %10 (5.000 Patatik. aurrera) |
| MARIAN | Lesaka | %10 |
| **KIROL DENDAK** | | |
| IPARLA KIROLAK | Elizondo | %8 |
| ZELA KIROLAK | Bera | %10 |
| AGARA KIROLAK | Bera | %10 Kirol Artikuluetan |
| Mª LUZ SPORT | Bera | %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez. |
| **LENTZERIAK** | | |
| Mª CRUZ | Doneztebe | %10 (5.000 Ptatik. aurrera) |
| MAITE | Elizondo | %10 (5.000 Ptatik. aurrera) |
| DEÑE | Lesaka | %5 Kortseterian %10 Lentzerian |
| **LIBURUDENDAK** | | |
| NAFARPRESS | Elizondo | %10 Liburu eta ikas-materialak |
| LEGARRA | Lesaka | %10 Lib. + ikas-matec. (1.000 Pta.) |
| **MOBLEDENDAK** | | |
| AMAIUR ALTZARIAK | Doneztebe | %6 |
| LEIZA | Elizondo | %10 Sukalde mobletan |
| **OPTIKAK** | | |
| OSTARGI | Bera | %10 |
| **ZAPATADENDAK** | | |
| ALDI ROZAS | Bera | %10 |
| GOÑI | Elizondo | %10 (2.000 Ptatik. aurrera) |
| B. ALMANDOZ | Elizondo | %10 (3.000 Ptatik. aurrera) |
| NEREA | Doneztebe | %10 |
| OSTIZ | Doneztebe | %10 |
| **ZURGINAK** | | |



**...eta Berako AYLA argazki dendan, %10eko DESKONTUA izanen duzu argazki makinetan ezik bertze guzian....**

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK** saltzen dituen txartelak erosiz, gauza aunitz lor ditzakezu: ttipi-ttapa lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin.

**Informazio gehiago:**